

ARGIA



***“Iruñeko Udaleko
eredua guztiz
esportagarria da”***

JOSEBA ASIRON
Iruñeko alkatea

34-38. orrialdeak

#2.858 | 2024 / 02 / 11 | 4,00 €



**Nayib Bukele
berriro ere
presidente**

24 | EL SALVADOR



**Ikastetxeen arazoei
herri ikuspegitik
erantzuten**

30 | HEZKUNTZA



**“Musikaria baino
gehiago, musika
fan handia naiz”**

46 | FELIX RÜDIGER BUFF

egonarrria

Lurrari entzuten dion saioa

Pilpilean diren gaiez elkarrizketak,
Eli Pagolak gidatuta platoan.

Laborarien esperientziak,
Mattin Jauregik jasoak landatik.

Asteazkenero argia.eus-en eta
plataforma guztietan

 ARGIA.eus/podcast

Otsailak 7

**Laranjak, limoiak...
zitriko uztak posible dira
Euskal Herrian?**

Mirene Begiristain eta Leire Ibarretxe
(Biolur)

Otsailak 14

**Erlategiko burrun-burrunaren
barruan**

Mikaela Untsain

Otsailak 21

Hiriak nola elikatu?

Audrey Hoc (Biriaturko proiektua)

Otsailak 28

**Zer da benetako dieta
osasuntsu bat?**

Leire Udabe (Lakari denda)



Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU



AZALEKO ARGAZKIA: ZOE MARTIKORENA / ARGIA CC BY-SA

Iritziak

- 19 | IKER IRAOLA
- 20 | ANE ABLANEDO
- 21 | ITZIAR MORENO
- 21 | LEIRE NARBAIZA
- 22 | NEKANE TXAPARTEGI

Finkoak

- 39 | DENBORAREN MAKINA
- 40 | BIZI BARATZEA
- 44 | KOMUNITATEA
- 45 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



24 | EL SALVADORREN BERRIZ BUKELE PRESIDENTE

Maria Ortégak landutako erreportajeaz azaldu du politikari honen bilakaera eta indarkeriaren erabilera: "Giza eskubideak triangelu baten barruan ulertzen dira hemen: segurtasuna, demokrazia eta giza eskubideak. Eta ulertzen da ezinbestekoa dela eskubideak urratzea segurtasuna bermatzeko. Estatuak erabakiak hartzen dituzte segurtasunaren izenean".

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL | BALUTXEEN PATUA

Lurpean aberastasuna, lurgainean gatazka

Nicolas Goñi

14 | PERTSONAIA | ERIKA GONZALEZ

"Pribilegiatua naiz, baina gogotik lan egin dut"

Miel A. Elustondo

30 | HEZKUNTZA | NEREA ZUBIA

"Erraz diogu ikastetxeen arteko lehia gainditu behar dela, baina ez da hain sinplea"

Mikel Garcia

34 | POLITIKA | JOSEBA ASIRON

"Iruñeko edozein auzotan haurrak euskaraz ikasteko aukera izatea, hori da legealdirako helburua"

Xabier Letona

46 | KULTURA | FELIX RÜDIGER

"Unibertso bat eskaini behar du abestiak, Beatles-ek egiten zuen moduan"

Jenofa Berhokoirigoin


 EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA

 ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

 KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Jabetza
Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa
Amaia Lekunberri, Axier Lopez,
Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre,
Gorka Peñagarikano, Izaro Villarreal,
Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner,
Lander Arbelaitz, Leire Artola,
Manex Moreno, Mattin Azpiroz,
Mikel Garcia, Onintza Irueta, Pello Zubiria,
Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua
Maitane Gartzandia

Argazkilaria
Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.

Administrazioa
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta
Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa
Olatz Korta

Azoka
Mikel Olabide

Idazkaritza
Aloña Soraluze, Bego Zuz

Web garapena
Asier Iturralde

Informatika
Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua
55 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea
72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoko
komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonia
943371545

Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA
honako enprekin batera:



Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu,
moldatu, zabaldu eta argitaratu
ditzakezu, gure egiletza aitortu eta
baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da
testuontzat eta, argazkien eta
ilustrazioen kasuan, ARGIAren
sinadura daramatenentzat soilik.



Lukurreria

Julianek 72 urte ditu, gaitz koronarioa dauka eta bere sorlekuan bizi da Astigarragako baserri batean hiru seniderekin. Horietako batek desgaitasuna du eta beste bat, adingabea, elbarria da. Zaragozako Gormendino SL "mailegatzaileak" etxetik botarazi nahi ditu. Julianek 147.000 euroko mailegua eskatu zion, eta orain 197.715 euroko zorra du. Bai, langile klasea arpilatzearen kontura aberasten diren sarraskijaleak bizirik dira, eta Justiziaren aurrean dagoena ez da lukurreriaz bizi dena, familia aurrera atera nahian etxea gal dezakeena baizik.

📍 Julian, Kaleratzeak Stop elkarteko kideekin batera Donostian. **JON URBE / FOKU**

📷 **AXIER LOPEZ**



...
...
...
...
...

IKPI
ESTATA
LAPURTA
KILTA
LAPURRA

KALERATZEAK
STOP
SAHUCIOS

Basoilarra agertu da Larra-Belaguan

URKO APAOLAZA AVILA

Desagertzeko arriskuan dagoen basoilarra ikusi dute azken egunetan Larra eta Aztaparretako naturgunean, Belaguako La Contienda bailarako eski estazioko aparkalekuan. Jokabide arraro horrek kezka sortu du biologoen artean, aurtengo negu beroak eraginda izan baitaiteke. Basoilarra azken izotzal-diaren lekuko fosila da kasik, eta klima aldaketaren eta ekosistemen galeraren adierazle izan liteke bere bisita, zer mezu dakarkigu gizakioi?

Apenas geratzen da basoilarrik jadanik Euskal Herriko mendietan. Azkene-ko aleak aspaldi ikusi ziren Nafarroako Pirinioetan, Larra eta Belagua inguruan; ugariagoa den Aragoiko Pirinioetan, ber-rriz, lehendik zegoen eremuen %40 ingur-utik desagertu egin da azken urteetan, 2022an egindako ikerketa baten arabera.

Egunotan basoilarra Belaguako La Contiendako aparkalekuraino hurbildu da, gizakitik gertu eta jokabide arraroa- rekin, izutzeko imintziorik egin gabe. Horrek harridura eta kezka sortu ditu,

Milaka urtez iraun du gure artean baina orain desagertzeko zorian jarri dugu, ez soilik negu honetako ez-ohiko beroagatik, baita horri gehituta bere ekosistema hondatu dugulako ere

izan ere, basoilarra oso hegazti zaur- garria da: ezkutuan egon ohi da, pinu beltzen artean, eta gizakia bizi den to- kietatik oso aparte.

Adituen esanetan, baliteke neguko eguraldi beroak eraginda hartu izana jarrera hori –elurra erabat desagertu da Pirinioetan 2.000 metrotik behera-. Horrela kontatu dio Gabi Berasategi

biologoak Euskalerria Irratiari: "Aemet agentziak berak esan du urtarril honek martxoaren antza hartu duela eta segu- ruenik bere jokabidean eta bizimoduan kalte egin du horrek".

Basoilarra harraldian sartu da ohi baino azkarrago eta bere kantatokian emerik agertu ez denez, bere eremuetatik kanpo irten da haiek erakarri nahian, jendea- rengana hurbilduta –hainbat espeziek noiz edo noiz izaten duten jokabidea da hori-. Hala, Arlas mendi inguruetan eta La Contienda eski estazioan zeuden es- kiatzaile eta mendizale zenbaitek haren kantu bitxia entzun dute.

Horrek, noski, arrisku handian jarri du basoko hegazti handiena den gali- forme berezia –70 zentimetro neurtu ditzake-. Gizakiaren presentziarekin asko estresatzen da basoilarra, garrasie- kin eta zakurren zaunkarekin esaterako, eta energia eta indar asko galdu dezake, oraindik negua den honetan. Basozainek operazioa jarri dute martxan, basoilar hori babestu eta ahal izanez gero bere ohiko tokiren batera eramateko.

Herritarrei eskatu diete ikusten ba- dute ez daitezela hurbildu, ez dezatela argazkirik atera –debekaturik dago de- sagertzeko arriskuan dauden animaliei argazkiak ateratzea baimenik gabe- eta lehenbailehen abisatzeko basozainei.

Berasategik kezka hartu du albistea, eta nabarmendu du "oso zail" jartzen ari garela bizimodua halako espezieei: bate- ko basoen ustiaketa eta hesiak, besteko naturaren beraren prozesuak, eta men- diko beste jarduera batzuk, hala nola eski pistak, turismoa... "Bere ekosistema zatikatzea ekarri du", dio.

Pirinioetan bizi den basoilarren az- pi-espeziea azken glaziazioaren lekuko zuzena da, milaka urtez iraun du gure artean baina orain desagertzeko zorian jarri dugu. Ez soilik negu honetako ez- ohiko beroagatik, horri gehituta, baita bere ekosistema hondatu dugulako ere.

Basoilarrek ez du bere kantatokian inor aurkitu, baina ez du modurik beste kantatokietara joateko. Bioindikatzail- ezin hobea den heinean, gure etorkizu- naren ispilu ere bada. Akaso hori esatera etorri zaigu? ●



Ispilua



UXUE APAOLAZA LARREA

Non gordetzen dituzu kudeatu ezin izan dituzunak? Badago pilularen bat ondorioak arintzeko? Orfidalak, adibidez? Bestela? Ezkutatu beharko dituzu ile urdinak, ileak oro har (aurpegikoak, zangoetakoak, besazpietakoak, pototakoak, titietakoak, zilbor azpikoak...), zimurrak, umore txarra, begi zuloak. Zahartzeak eta nekatuta egoteak sortzen duen hori guztia, alegia; erakustea zigortzen den guztia, beraz (pentsa erotuta bazaude, pobrea bazara... zenbat ezkutatu beharko duzun). Esternaliza ditzakezu kolpeak? Baduzu Dorian Grayren ispiluaren moduko zerbait?

Eta gizartean, zer gordetzen dugu? Zer ez zaigu ikustea gus-tatzen? Zer gero eta gutxiago? Zabortegiak, beti. Erraustegiak. Usaina, kutsadura... isilean eta arinduta iristen zaizkigu, fabri- ketako kearen moduan. Zaborra, eta kea. Eta ospitaleak ere jartzen ari gara kanpoaldean; lehen arreta desagertzen ari de- nez, beharrik ez, ospitalera joango gara karkaxak eskutan. Non daude CIEak? Non daude gurasorik gabe iristen diren haurrak? Ikusten dituzue? Nola tratatzen ditugu? Ondo jaten dute? Kar- tzelak ere gero eta urrunago nahi ditugu, ikusten baditugu, nahi gabe, noizean behin, hor jendea dagoela gogoratzen baitugu bestela. Jendea, gu bezalakoa. Zer egiten dieten jakin nahi ez dugun jendea. Inporta ez zaigun jendea ez, beldurtzen gaituena, geure burua direnez. Zer kanporatuko dugu hurrena? Non ez dakigu zer gertatzen den? Zerk beldurtzen gaitu? Zahartzaroak? Barrurantz nahiko ezkutatuta daude orain ere, zahar etxeak, pandemia batzuk hiltzea erabaki zuten zenbait lekutan, eta ez da ezer gertatu: noizbait, atera beharko ditugu horiek ere kan- pora, Gipuzkoan, Zubietara, pentsatzen dut.

Dorian Grayk, ordea, egun batean, bere burua ikusi zuen, baita gainerakoek ere, guztiz esternalizatu zuenean dena. Guztiz esternalizatu zuenean bizitza. Hil zenean, guztiz. ●



MOTZEAN

► Euskadiko Basogintza Elkarteen Konfederakundeak bultzatuta, CO2aren borondatezko merkatu bat sortu nahi dute Euskadin 2024an. Merkatu honetan, basozain txikiei zuhaitzen karbonoa erosteko aukera izango dute euskal enpresek, haien karbono aztarna gutxiagotzeko, EHUK jakinarazi duenez.

► Herriko azokan postua jartzen duten baserritar jubilatuei isun ekonomikoak ezartzen ari zaizkio Gizarte Segurantza, baita bi hilabeteko pentsiorik gabeko zigorrak ere.

► Ur botilen enpresa batzuen praktika ilegalak salatu dituzte ikerlariak Frantzian. Nestlé enpresak bere uraren kutsadura estali du, debekatutako garbiketa metodoak erabilita.

► Tel Aviveko Maccabi eta Saski Baskoniaren arteko partidu osoan zehar Palestinako banderak erakutsi eta "genozidioa" oihukatu zuten, Israeli Boikot-en protestarekin bat eginez.

► Euskarazko hizkuntza eredu handiena eta librea sortu du Hitz Zentroak: Latxa. LLM edo hizkuntza eredu handi bat da, adimen artifizialeko ekimenek oinarrian duten super-datubasea.

EKONOMIA

Ez duzue lotsarik



AINHOA ETXAIDE
AMORRORTU

Enplegu duina ziurtatu berdintasun baldintzetan, jarduera ekonomiko lehiakor, jasangarri eta arduratsua bultzatuta". Ez da txikia Eusko Jaurlaritzak PSE-EEren ekime- nez Enplegurako Itun Sozialari jarritako helburua. Eta ez dira gutxi itunarekin bat egin dutenak: enpresariak, EAEko hiru unibertsitateak, merkataritza ganberak eta gutxiengo sindikala, besteak beste.

Enplegu duina ziurtatzeko bost ardatz, hamar konpromiso eta amaierarik ez duen kontzeptu zerrenda aurkitu daiteke: kalitatezko enplegua, enplegu erresilientea, enplegurako politika aktiboetarako eskubide subjektiboa, aukera berdintasuna... Zailtasun bereziak dituzten kolektiboentzat berdintasuna ziurtatuko dien arreta eta zerbitzua ere aipatzen da itunean. Baita berrikuntza ere. Eta geroz eta gehiago aldatzen den lan merkatuan, erantzun azkarrak eta arinak eman behar izatea. Lurraldean arteko orekaz ere ari da, enplegurako aukerak eskualde edo herri guztietara iritsi daitezten. Adostasunak, elkarlana eta gobernantza irekia. Eta batez ere: sustatu, bultzatu, lagundu, eragin, bideratu, iradoki. Bide oso baten emaitza. Elkarrizketa Sozialerako mahaiaren lorpen berri bat. 2023an onartu zen Enpleguaren Euskal Legearen ondorioa. Arnas luzeko *Enplegurako Euskal Estrategia 2030* planaren baitan kokatzen dira guztiak.

97 eragile, prekarietate hitza aipatzen ez duen eta lan merkatuari begira neurri zehatz bat bera ere jasotzen ez duen adostasun zabal bezain hutsalaren bueltan. Sailburuak azpimarratu duenez, sekulan egin ez diren gauzak egin direlako lortu den ituna da honakoa. Auskalo zer den ezer ez egiten jarraitzeko egin behar izan duten gauza berri hori. Auzo lotsa. ●

ANALISIA



Finean, ingurumena galtzaile

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Laborarien ongiezaren eta mundu mailako komertzio bidegabearen errealitateak lehen lerroan jartzeko balio izan digu Ipar Euskal Herrian eta Frantziako Estatuan zabalduko laborarien mugimenduak. FNSEA eta JA sindikatuek gidaturiko protestak bi aldarri nagusi zituen: berehalako laguntza ekonomikoak eta arauen gutitzea. Ongiezak eta kexuak akuilaturik, berehala erantzun zioten blokeoaren deia nekazariak –izan afiliatuek edo ez–. Kanpotik eta hiritik ikusita, baliteke *altxamendu* itxura hartu izana, Paris hartzera doazen milaka menperaezinen *protesta kontrolaezin* batena. FNSEAK buruak laborariei etxera sartzea galdetu dien honetan, ondoriozta dezakegu ez dela horrela izan: hamarkada luzeetan eskuz esku dabilzan FNSEAK eta Frantziako Gobernuak elkarrekin orkestraturiko protesta izan da. Agroindustriaren bultzatzaile den FNSEAK bidean kausituriko trabak –arau ekologikoak– desagerrarazteko asmoz gidaturitako protesta izan da. Bistan da, laborarien ongiezari erantzuteko aldarriak ere zituen esku artean, blokeoetatik hori zutelako galdatzen. Joko maltzurra egin du hor FNSEAK, laborarien desesperazioa bere interesen alde baliatuz. Bi neurri aipatu ditzakegu: Bioaniztasunaren Agentzia independentea estatuaren meneko jarri izana –agroindustriaren lobbygintza ikusirik, bada aldaketa arriskutsua– eta 2030erako pestiziden erabilpena %50az gutitzea helburu zuen Ecophyto Planaren etenaldia. Zailtasun ekonomikoei erantzuteko neurri batzuk ere lortu dituzte, hori gabe mespretxu edo trufa sentimendua areagotuko zitzaielako laborariei.

Mugimendu sozial ia oro erreprimitzen duen Frantziako Estatuan nahiko esanguratsua izan da ikustea Poliziari pazientzia eta elkarlan handiz bideraturiko blokeoak izan direla. Esanguratsua ere *mainstream* komunikabideek egin dioten jarraipena –tartean, milioi askoko industrial Vincent Bolloréren eskuetan den C News kateak elkartasunez bere logoa alderantziz jarri izana–.

Agroekologiaren alde dabilen Confederation Paysanne sindikatua ere lotu zaio borrokari, aldarri propioak aitzinean jarriz. Baina ez da entzuna izan: negoziazio mahaira ez da deitua izan eta *mainstream* komunikabideetan ere ez da kontuan hartu. Guztiontzat balio beharko lukeen abisua dakar laborarien mugimenduak: trantsizio ekologikoak aurkariak kausituko ditu bidean eta aitzina egiteko determinazio politiko handia beharko dute agintari politikoek. Aldi honetan ez dute horrelakorik ukan, eta laborariez gain, guztiok gara galtzaile atera. ●

41

dira Estatuaren biolentziaren biktima gisa onartze bidean direnak, Nafarroan. Egiari Zor Fundazioak eta Nafarroako Torturatuen Sareak jakinarazi dutenez, urrats garrantzitsua da "gure herrialdean izandako biolentzia guztiak aitortzeko eta erreparatzeko bidean".

%54

emendatu da etxebizitza hutsen kopurua Ipar Euskal Herrian, 2009 eta 2020. urteen artean, Inseek 2024ko urtarrilaren 16an argitaraturiko azterketa baten arabera.

165

sute piztu dira gutxienez Txilen, joan den asteburuan, eta hainbat sute nahita eragindakoak diren susmoa dute. Ehundik gora hildako, desagertu ugari eta etxea galdu duten 40.000 lagun, hondamendiaren zifrak astekari hau ixteko unean (otsailaren 5a).

"AHTren obrak amaitzeko urtetxo batzuk beharko dira oraindik"

IÑAKI ARRIOLA

Eusko Jaurlaritzako Garraio sailburuak onartu du herritarrak "nekatuta eta haserre" daudela obren iraupenarekin.

2024-01-31



"NORK HARTUKO DITU BERE GAIN LIZENTZIA IRREGULAR HONEN MILIOI ASKOKO ONDORIOAK?"

HARITZALDE TALDE EKOLOGISTA

Xabi Alonsoren Igeldoko txaleta legez kanpoko deklaratzeko duen epaiaren aurka helegitea jarriko duela iragarri du Donostiako Udalak. Etxea eraitsi behar dela uste du talde ekologistak.

2024-01-30

"Adimen artifiziala zerbait berria da eta liluratuta gauzka, baina azkenean aspertu egingo gara eta gizakiek egindako ilustrazioek balio gehigarria izango dute"

LUIS DOVISO

Diseinatzaileak salatu du Irungo inauterietako kartelen lehiaketa irabazi duen irudia (ezkerrean) adimen artifizialak egina dela.

ARGIA.EUS (2024-02-01)



TEKNOLOGIA

Neuro-txertoak



DIANA FRANCO

Txertaketa landare baten zatia beste landare bati lotzea da. Espezie berriak sortzeko modu artifiziala. Horrela, bi espezieak organismo bakarra bailiran hasiko dira. Badirudi preziazten ditugula nahasketa hauek gizakiok, batzuetan egoera konplexutan landareei hazteko aukera ematen dielako, edota aniztasun aukerak sortzen dituztelako.

Gizakiok landareak bezala gure emaitza onenak emateko giro egokia behar dugu, bakoitzaren gaitasunetara egokiturikoa. Baina ez da lan erraza, eta horregatik, antzinatek gizakientzako giro onena sortzea ez ezik, gizakiok bizi dugun girora egokitzeko lanak egin izan ditugu.

Egokitzeak, berez, ez du zertan konnotazio txarrik izan, erabaki hausnartua bada, bilatzen den aldaketa bada, ikasketa batetik datorren aldaketa bada eta bizitzarako onurak badakartza.

Egun hauetan badirudi Elon Musken Neural Link proiektua gizakietan probatzen hasi direla, baina ez da bakarria, Txina txip neuronalak garatzen dabil baita ere.

Teknologiak garatzerakoan, gizarte eta munduan duten eragina pentsatzeko komenigarria da horiekin batera etorriko diren negozio ereduak hausnartzea. Ikasi dugu, adibidez, GAFAM (Google, Amazon, Facebook, Appple, Microsoft) plataformen negozio ereduak gizarteetan izaten ari diren eragin kaltegarriak.

Beharbada, txip hauek interesgarriak izango dira zenbait gizaki eta animalien aukerak areagotzeko. Itsuentzat mundua zabaltzeko, adibidez, irisgarritasuna handiagoko teknologia izan daiteke. Espezieen arteko harremanak eraldatu ditzake baita ere. Baina nik ez dut presarik negozioa gidatuta teknologia sortzen duten enpresen txertoak nire buruan jartzeko. Egun, nahikoa dut digitalarekiko dudan mendekotasuna murrizteko. Txerto hauek gizakion gizarteak menderatzeko azken eremuak dira: asmoa, eta horrekin gorpuzta, bideak bezala hautematen ditut nik. Ikusteko dago zer gertatuko den eta txerto hauek ekarriko duten mundua, txertoa jartzen ez dutenentzat egokitzeo aukera izango ote den. ●

NAZIOARTEA



Europar Batasuna gerrara doa

AXIER LOPEZ

Ebko Atzerri Gaietarako eta Segurtasunerako goi-ordezkarri Josep Borrellek adierazi duenez, gerra itsasontziak eta hegazkinak bidaliko dituzte Itsaso Gorrira, Israelera doazten merkataritza-ontzien aurkako yemendarren erasoei aurre egiteko. Belgikak, Italiak, Frantziak eta Alemaniak, besteak beste, ekintza armatuaren alde egin dute. Espainiako Gobernuak adierazi du ez duela parte hartuko, baina “ez du eragozpenik” operazioa martxan jartzeko.

Operazio militar berri honek 'Aspides' izena du (“babesa”), sozialista katalanaren arabera horixe delako helburua: “Gure itsasontziak babestea, huthien aurka ez dute inolako ekintzatan parte hartuko. Ontzien aurkako erasoak blokeatuko dituzte, besterik ez. Itsaso Gorrian gertatzen denak bakeari eta egonkortasunari eragiten die eta Europako enpresa askok zerbait egiteko eskatu digute, beren negozio-eredua asko sufritzen ari delako”.

Hau da, bakeari eragiten diona genozidioaren aurkako ekintza internazionalistari handiena da, yemendarrak egiten ari direna. Bitartean, 10.000 haur baino gehiago hil dituen estatu sionistari alfonbra gorria lixatzen ari zaie, Eurovisionen kanta dezaten.

“Nazioarteko legedia” arduratzen da Afrikako kostalde osoa inguratzeak Mendebaldeko zamaontziei ekarriko liekeen kostu-gehikuntzaz eta Europako inflazioari eragingo liokeen gailak handiaz. Palestinari dagokionez, “nazioarteko legedi” ho-

rrek hamarkadak daramatza beste aldera begira, eta nahiago du Itsaso Gorriaren inguruko krisia militarizatu eta areagotu, Israelen sarraskia gelditu eta irtenbide baketsu eta justua bilatu baino.

GOSEAK HILDAKO HERRIA, ETSAI

33 milioi pertsona inguru bizi dira Yemenen. Pertsonako BPGren arabera rankingean munduko azken postuetan daude eta Giza Garapeneren Indizean yemendarrak bizi-kalitate txarrean dutenen artean daude. Bi herenek, ia 23 milioi pertsonak, ez dakite nola lortuko duten hurrengo otordua, Oxfam GKEren arabera. Beste gerra geopolitiko baten ondorioetako batzuk dira, ia 10 urtez luzatu dena. Egoera “hobetzeko”, azken egunotan AEBek eta Erresuma Batuak, beste estatatu batzuen laguntzarekin, Yemen bonbardatzeari ekin diote Israelen (eta beren negozioen) defentsan.

Baina, hala eta guztiz ere, Yemen-go talde armatu batek kinka larrian jarri du Itsaso Gorrian barrena pasatzen den munduko merkataritzaren %12, lagun palestinarrekiko elkartasunaren izenean. Hala espero dute Mendebaldeko gobernuak mugiaraztea, behingoz Israel presiona dezaten Gazan genozidioa amai dadin. Emaizta, aldiz, bestelakoa da. Mendebaldeak sionistei su-etena ezartzeko edo nazioarteko legedia betetzeko dei egin beharrean, hori bera aldarrikatzen ari direnen aurka bonbak eta gerraontziak bidali ditu. ●

Afrikako Kopa, kontinente baten ispilu

XABIER RODRIGUEZ

Afrikan futbola grinaz bizi dela esatea ez da nobedatea. Tangerrretik Lurmutur Hirira eta Dakarretik Mogadisciora, kontinentea osatzen duten 54 herrialdeak eta zientoka hizkuntzak aniztasun kultural paregabe baten isla dira. Aniztasun horretan baloia da afrikar guztiak elkartzen dituen gauza bakarrenetakoa, eta Afrikar Herrietako Kopa bertan jokatzeko txapelketarik garrantzitsuenak.

Txapelketa horrek, zeinaren 34. edizioa Boli Kostan jokatzeko ari den (finala otsailaren 11n izango da), Europako talde boteretsuenen haserrea piztu du, beraien afrikar jokalaririk onenak, denboraldi bete-betean, haien selekzioekin joateko libre uztera behartuak izan direlako. Afrikako Futbol Konfederazioa (AFK) eta Europako klubak arteko gatazka bi urtean behin azaleratu ohi da, alegia, Afrikako Kopa jokatzeko den bakoitzean.

2019an txapelketa ekaina eta uztaila bitartean jokatu zenean, bazirudien konponbidea aurkitu zutela, eta 2023ko edizioa berriro sasoi bertsuan egitea espero zen. Baina data horietan Boli Kostan eurite handiak izaten direnez, txapelketa aurtengo negura atzeratzea erabaki zuten. “Ezin dugu arriskurik hartu”, adierazi zuen AFKko presidente Patrice Motsepe.

Europak mesfidantzaz begiratzen duen txapelketa 1957an jaio zen, Eurokopa baino hiru urte lehenago, afrikar herrialdeen independentzietako lehenengo garaian eta panafrikanismoaren mugimendua kontinentean zehar zabalitzen ari zen momentuan. Izan ere, Afrikako futbola Afrika libre baina lehena gokoa da, ingeles eskutik iritsi zen XIX. mendean, eta deskolonizazio prozesua hasi zenean kontinente osora zegoen zabaldua dagoeneko.

1955ean Asiar-Afrika batzarra egin zen Bandung-en (Indonesia), eta Lerrokatu Gabeko Herrialdeen Mugimendua jaiotzari bide eman zion. Urtebete geroago, Egiptoko presidente Gamal Nasserrek nazionalizatu egin zuen Suezko Kanala, eta europar potentzia kolonialen gidaritza irrijarri jarri zuen.

Bitartean, Lisboan, FIFAREN batzarra ari zen ospatzen, eta hara ere heldu zen



WIKIMEDIA

panafrikar sentimendu hori. Egipto, Sudan, Etiopia eta Hegoafrikako ordezkariak bertan bilduta, Afrikako Futbol Konfederazioa osatzeaz aritu ziren hizketan. FIFA, Europako federazioek kontrolatua, aurka agertu zen, baina 1957an AFK jaio zen, eta urte horretan bertan jokatu zen Afrikar Herrialdeetako Koparen lehenengo edizioa, Khartum-en (Sudan). Egipto, Sudan, Etiopia eta Hegoafrika ziren jokatzeak, baina Hegoafrika deskalifikatu egin zuten, jokalaririk zuri eta beltzez osatutako taldea aurkezteari uko egin ziolako. Apartheid sistema amaitu arte Hegoafrikako selekzioak ez zuten Afrikako Kopan parte hartu.

NEGOZIOAREN BIDEA

Parte-hartzaileen kopurua handitzen joan zen, herrialdeek independentzia lortu ahala. Aldi berean, munduko kirol txapelketa handien ezaugarriak hartzen joan zen. Europa eta Amerikako herrialdeak futbola propaganda-tresna gisa baliatzen zuten moduan, Afrikako Kopa kontinentearen errealitate politikoaren ispilu bilakatu zen. Horrela, 1960ko hamarkadan, Ghanako selekzioa izan zen nagusi, Kwame Nkrumah presidente eta panafrikanismoaren liderretakoak futbolaren alde eginiko apustua medio. Artean, txapelketaren ospea hazten ari zen etengabe.

1980ko hamarkadan sartuta, Muammar al Kadafi, Hosni Mubarak edota Hassan IIak bazekiten Koparen arrakastaz nola baliatu eta Libia, Egipto eta Ma-

roko txapelketaren anfitrioi izatea lortu zuten. Mandelak ere izan zuen bere Afrikako Kopa 1996an; baita irabazi ere, Hegoafrikako selekzioak parte hartu zuen lehenengo aldian.

Gaur egun, futbol profesionalaren bitartek, Afrikako Kopak negozioaren bidea jarraitu du eta AFKren diru-sarreraren iturri nagusia bihurtu da, munduko korporazio handiek praktikatzeko duten kolonialismo era berriari jarraituta. Zentzu horretan, 34. edizioak TotalEnergies Frantziako petrolio konpainiaren izena darama, eta txapelketako finala txinatarrak kapitalarekin ordaindutako Alassane Ouattara estadio dotore berrian jokatu da.

Edonola ere, Afrikako Kopa da kontinente osoko jendeak ikusten duen txapelketa bakarra, eta txapelketako partida horiek dira bertako jokalaririk onenetako batzuek “etxean” jokatzeko dituzten bakarrak. Futbolari batzuek, jatorriz Mozambikekoa zen Eusebiok edota Senegaleko Patrick Vieira adibidez, beraien harrerako herrialdeekin jokatzea aukeratu zuten. Beste batzuek, ordea, Alemanian jaiotako Kevin-Prince Boateng edota Euskal Herrian jaiotako Iñaki Williams, nahiago izan dute euren jatorrizko herrialdeko selekzioarekin jokatzea. Bestalde, izan dira Afrikako Kopan nabarmendu diren jokalaririk bikainak, Maliko Salik Keita, Egiptoko Mohamed Salah, Boli Kostako Didier Drogba eta Kamerungo Roger Milla, besteak beste. ●

BALUTXEEN PATUA: LURPEAN ABERASTASUNA, LURGAINEAN GATAZKA

Europar gutiegi ezagutzen ditugun balutxeek salatzen dute pobrezian atxikiak eta beren baliabide naturalez desjabetuak direla. Hamarkadatan pairatu zapalkuntza –bahiketez, torturez eta erahilketez josia– ez diete ezabatuko "garapena" iragartzen dieten Txina-Pakistan korridorearen eraikitzeak eta Gwadar portuaren handitzeak. Aitzitik, aberastasun arrakala leundu ezean, bortizkeriaren zikloa areagotu daiteke.

 NICOLAS GOÑI

Urtarrilean Iranek Pakistango lurraldeari eraso zion, eta Pakistanek berdin erantzun. Bi estatuen arabera, parekoarena "terrorismoa" zen. Iranek hartarako hautatu duen unea aipagai izan da, une berean Irakeko Kurdistani eta Siriari ere eraso zielako. Aldiz, gutiago aipatu da Iran eta Pakistanen arteko muga zeharkatzen duen Balutxistanen historia eta terroristen deituriko taldeen jatorria.

2012an Karlos Zurutuzak ARGIAri eskainiriko *"Enpatiarik gabe nekez transmititu ahalko duzu inoren sufrimendua"* elkarrizketan zioen Ekialdeari buruzko ezjakintasun handia dugula, eta bereziki Balutxistan aipatuz gero jende asko izen hori asmatzen duelakoan dagoela, hain delako eskualde ezezaguna.

HIRU ESTATUEN ARTEAN ZATITURIK

Balutxistan inguratzen dute Bam, Sulaiman eta Kirthar mendiek, Helmand erreka eta Omango golkoak. Kurduak bezala irandar hizkuntza dute (balutxia), eta 1000 urtez bizi izan dira eremu horretan, tribu konfederaziotan nagusiki, nahiz eta XVIII. mendean, lurraldearen erdialdean Kalat erresuma osatu. XIX. mendean persiar eta britainiar inperioek lurraldea konkistatu eta zatitu zuten, iparreko zerrenda txiki bat afganiar inperioaren esku utziz.

XX. mendean, Kalat erresuma ohiak Pakistanen independentzia bermatu

zuen, hori eta gero balutxeentzat autodeterminazioa lortzeko asmoz, baina Islamabadek eskubide hori ukatu zien beti.

Deskolonizazioak ez zuen beraz egoera hobetu: gaur egun, bai Irango eta bai Pakistango eskualde azpigaratuena da Balutxistan –lur azpia oso aberatsa duen arren–. Edo hain zuzen horrexegatik: balutxe askoren iritiz, Islamabad eta Teheranek nahita atxikitzen dituzte pobrezian eta ezjakintasunean, bi estatuek bertako baliabideak oztoporik gabe usiatzeko. Balutxeen borroka armatua hasi zen Pakistanen aurka lehenbizi. Tentsioak igo ziren 1960ko hamarkadan, Islamabadek eskualdeen autonomia murriztu ondoren eta talde armatu balutxeek Sui hirian dagoen Pakistango gas hobi handienaren etekinen zati bat eskatzen zutelarik. Iranen laguntzarekin bideratu errepresio gogorrak gerrilla asko ahuldu zuen ia 30 urtez, 2005ean berpiztu zen arte.

Urte hartan, Suin kapitain batek Shazia Khalid mediku eta militante feminista bahitu, torturatu eta bortxatu zuen. Autoritateek auzia isilpean gorde zuten eta Khalid mehatxupean igaro zituen ondorengo hilabeteak. Honen ondorioz matxinadak piztu zituen Bugti tribuak, Pakistango gas hornidura hainbat astez moztuz, eta Musharraf presidentek F-16 hegazkin erasoz, barreatze bonbaz, fosforo xuriz eta bertzelako arma kimikoz erantzun zien. Errepresio horretan, Pakistango segurtasun zerbitzuek milaka

pertsona bahitu, torturatu eta erail zituzten. Voice for Baloch Missing Persons (Faltatzen diren pertsona balutxeen ahotsa) erakundearen arabera, 7.000 pertsona baino gehiago desagertu ziren.

Iranen menpe dagoen eskualdean ere egoera gogorra da: gutiengo eta sunitak izategatik diskriminatuak dira balutxeak. Amnesty International erakundearen arabera, 2021ean, Iranen izandako exekuzioen gutienez %19 balutxeak ziren, Irango populazioaren %2 inguru baizik ez direlarik balutxeak. Gabeziak bultzaturik, gazte asko kontrabandoan ari dira, batez ere gasolina Irandik Pakistanera pasatzen. Atxilotuak direnean droga trafikatzeari egotzi ohi zaie, horrek Iranen heriotza zigorra dakarrela.

2022ko irailean Chabahar hirian polizia batek 15 urteko neska bat bortxatu zuen. Sei egun geroago, Teheranen Jina Mahsa Amini kurduar jatorriko gaztearen erailketak Iran osoan matxinadak piztu zituen *emakumea, bizitza, askatasuna* lemapean. Kurdistanen eta Balutxistanen manifestazio bereziki jendetsuak egon ziren –errepresio latzez estalitakoak–. Irailaren 29an, Zahedan hirian poliziak 82 pertsona tiroz erail zituen. Errepresioak ordutik dirau: Farzin Kadkhodaei giza eskubide aktibistaren arabera, bahiketak eta talde atxilotetako ohizkoak bihurtu dira, eta askotan tortura erabiltzen da heriotza zigorra dakarten krimenen faltsuzko aitortpenak behartzeko.



WIKIMEDIA

TXINAREN BEHARRETATIK URRUN

Txinak Gwadar hirian finantzatzen duen aireportu berriaren eraikuntza. Kokapen estrategikoa duen portu horretan garatuko dituen azpiegituretarik askok ez dute balutxeen oinarritzko beharrekiko lotura zuzenik.

LUR GAINEAN JENDE TXIROA, LUR AZPIA ABERATS: ZEIN ETORKIZUN?

Suiko gasaz gain, baliabide mineral ugari daude Balutxistanen. Baliabide horiek beharbada oraindik azkarrago aterako dira lur azpitik, hain zuzen, Txinaren "Gerrikoa eta Bidea" inizatibaren sei korridoreetarik batek Balutxistan zeharkatzen duelako. Gwadarrera iritsiko da, Persiar Golkotik Itsaso Gorrirako bidean kokapen estrategikoa duen portura. Iniziatiba horren eragin globala Bigarren Mundu Gerra osteko Marshall planarekin alderatua izan da. Aldiz, Pello Zubiriak *Lurrikarak berriro Kaxmirren India eta Pakistanez gain talka egin dute Txina eta AEB-ek* erreportajearen zioen korridorea Xinjianetik abiatzeak laguntzen duela ulertzen Pekingo gobernuak

eskualde hartako uigurrei egindako zapalkuntza.


Gutiengoen egoerari dagokionez, Pekin eta Islamabaden elkarlanak ez die beraz onik iragartzen balutxeei. Karachin Giza Eskubideen Komisioko presidentordea den Asad Iqbal Butten arabera, balutxeek proiektu horretatik ez dute etekinik lortzeko itxaropenik. Langile guztiak Txina edo Penjabetik –Pakistan go probintzia aberatsena– heldu dira, armadaren zaintzapean: balutxeei ez diete lanik ematen, aski kualifikatuak ez omen direlako aitzakiarekin, baina askoren ustez, Islamabad haietaz fidatzen ez delako. Ikuspegi horrekin ez da harriztekoa BLAk (Balutxistango Askapen Armadak, talde armatu nagusiak) Txinako interesak gero eta gehiago helmugatzat hartzea. Halere, Txinak inbertitzen jarraitzen du

Saindak urre eta kobre meategian eta beziki Gwadar portuaren inguruko azpiegituretan: autopistaren luzapena, Irandik elektrizitatea inportatzeko azpiegitura, zentral termiko bat, LNG terminal bat, aireportu bat, ur gatzgabetze instalazio bat, goi mailako etxebizitzak, bost izarreko hotelak, erakustoki bat, Pakistan-Txina Laguntasunaren Ospitalea, Aramco petrolio findegia (azken hori Saudi Arabiak finantzaturik) eta cricket estadio handi bat. Hori dena pobrezian bizirautean duten balutxeen beharretatik oso urrun gelditzen da.

Urtarrilaren 30ean, paragrafo hau idazten ari naizelarik, BLAk eraso bat burutu du Mach hiriko eraikin militarren eta kartzelaren aurka. Oparotasuna hobeto banatu ezean, bakea nekez lortuko da Balutxistanen... ●



Garrett Leight eyewear



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

zinkunegioptika.com



Erika Gonzalez

AUSTRALIAN ERE ZAKURRAK HANKA-HUTSIK



PRIBILEGIATUA SENTITZEN NAIZ, BAINA GOGOTIK LAN EGIN BEHAR IZAN DUT



Hamasei urte zeramatzan Gabonak hemengo etxean igaro gabe. Urruti baita beti Australia. Haatik, lanak Euskal Herrira etortzeko aukera eman zion iragan urtearen amaieran, eta Lazkaon izan genuen aurtengo jaietan. Hangoak hango eta hemengoak hemengo, ibili dituen bide bihurri malkarrez mintzatu zaigu, berriro ere ibiliko lituzkeenez.

 MIEL. A. ELUSTONDO  ZALDI ERO / ARGIA CC BY-SA

Aurten jaioterrian eman dituzu Gabonak...

Azkena, 2005ean egon nintzen Euskal Herrian Eguberriak igarotzen. Hala ere, ez ditut hamasei urte eman etxera etorri gabe! Bi urtez behin etorri izan naiz hona. Ezin urtero ere etorri, hegaldia ikaragarri luzea eta garestia delako; are garestiagoa, seme-alabak tarifa osoa ordaintzeko adinera iritsi direnean. Gabonetan, gainera, orduan eta garestiago dira hegaldiak, eta gu etorri beharrean gurasoak joan ohi ziren Australiara, hango uda sasoiari. Gainera, hango Gabona errazagoa da, askoz festa gutxiago egiten da eta egunak hondartzan eman ohi ditugu, hainbeste bazkari-afari gabe!

Nola asmatu duzu zeure burua Australiako giro eta bizimodura egokitzen?

Denok gara ezberdinak. Hazi eta hezi garen lekukoak gara, eta uste dut dena delako leku horrek mundua modu jakin batean ikustera bultzatzen gaituela. Australiakoa, hala ere, ez da kultura bakar bat, hainbat kultura bizi dira han bata bestearen ondoan. Ezin dugu ahaztu, era berean, bertako aborigenek 60.000 urte daramatzatela kontinentean eta euren kultura eta tradizioak ere hor daudela. Australia arrazakeriak markatutako lurraldea izan da. Ingelesez esaera bat badugu: "Australia zuriak iragan beltza du". Egun, nazio kulturantz eta aberatsa dugun arren, eta so-

zialki orokorrean kohesio polita dagoen arren, beti ez da horrela izan.

Nola izan zen hasiera hura, zure sarrerara Australiako giroan?

Nik esango nuke nire hasierako egunak oso goxoak izan zirela, ze Euskal Herrietik etorri eta Sidneyko euskal etxera iritsi bainintzen. Euskal etxeak gela bat du goian, eta han bizi denak, dohainik, zaintzaile lanak egiten ditu ordainetan. Esate baterako, igandeko bazkaria egiten denean, sukaldean laguntzen du, garbiketaz arduratzen da, etxea zaintzen du. Euskal etxera iritsi ni, eta, bat-batean dozena bat amona heredatu nituela iruditu zitzaidan: aireportura bila etorri zitzaidan Carlos Orue eta emaztea,



Erika Gonzalez Garcia

LAZKAO, 1979



Erika Gonzalez Garcia (Lazkao, 1979), itzultzaile eta interpretea da. EHUKo irakasle izan zen Itzulpengintza eta Interpretazioan, harik eta 2006an Australiarako bidea hartu zuen arte, Interpretazio Sozialaz sakondu nahirik. Sidneyn doktoratu zen, eta Melbourneko RMIT unibertsitateko irakasle asoziatua da eta itzulpengintza arloko zuzendaria. Itzultzaile eta interprete *freelance* izaten ere segitzen du. Australiako Itzultzaileen eta Interpreteen Elkarteko buru izan zen 2019-2022 artean eta elkarteko zuzendaritza batzordean jarraitzen du egun. Australiako Gobernuko hainbat aholkularitza taldetan lan egiten du, Barne eta Osasun Ministerioetan besteak beste.

Miren, bizkaitarrak. Garai hartan euskal etxeko buru egiten zuen Carlos zenak. Gogoratzen naiz, aireportuan, Mirenek niri: “*Alabatxi...!*”. Etxetik etxera egitea izan zen, kasik.

Noizko kontuak ditugu?

2006koak. Urte hartako abuztuan joan nintzen, EHU*n* irakasten ari nintzela. Hiru urte lehenago itzulpengintza eskolak ematen hasita nengoen, irakasle gazte-gaztea nintzen. Hala ere, bizi-esperientzia bat izan nuen, begiak era batera ireki zizkidana-edo. Interpretea nintzen, Espainiako Senatuan eta beste hainbat instantzian itzultzaile eta interprete lan egiten hasia nintzen. Behin, Irundik hots egin zidaten, Espainiako Poliziaren egoitzara joateko.

Hara!

Bai. Nigeriar bat harrapatu zuten, nonbait, ingelesez hitz egiten zuen, eta interprete joateko eskatu zidaten. “Lan erraza!”, pentsatu nuen. Ordurako hitzaldietan-eta interprete lanak eginda nengoen, eta horixe pentsatu nuen: “Erraza izango da!”. Baina segituan konturatu nintzen interpretazio mota hura zeharo ezberdina zela. Han ez zegoen araurik, ez kode etikorik, ez ezer! Lan hura ahal nuen ondona egin, eta orduantxe tesina egiten hastea baitzegokidan, interpretazio sozialaren inguruan gogoeta egitea erabaki nuen.

Irungo kasu hark eraginda, esan nahi duzu?

Bai. Ohartu nintzen, euskara eta gaztelaniaren kasuetan, guk hortxe geneuzkala beti hizkuntza eskubideak, baina migratzaileen kasuan, zer hizkuntza eskubide zituzten? Zer interpretazio eskubide zen hura? Txinatarren kasuan, agian hots egiten zioten pareko jatetxeko sukaldariari! Edo alfonbra saltzaileari, beste zenbait hizkuntzaren kasuan. Ni, berriz, lizentziatura egina nintzen, Sorian, Valladolideko Unibertsitateko campusean, oinarri teoriko sendoak nituen interpretazioaz, eta, orduan, interpretazio soziala ikertzen hasi nintzen, eta tesina egin, aurkeztu, eta gero tesia egiten hasi nintzen, Kanadara joanda, Ottawara. Eta hura hotza! Belarria izoztu zitzaidan, autobusaren zain behin. “Berriz ere inora joaten banaiz, leku berora, behintzat”, esan nion neure buruari.

Baina nola heldu zinen Australia berora?

Interpretazio sozialari buruzko bildar batzuk badira, The Critical Link, Interpreters in the Community [Lotura Kritikoa, Interpreteak Komunitatean], eta Stockholmera joan nintzen, interpretazio sozialaz arduratuta bizi direnak munduan zertan ari diren jakin nahian. Han, berriz, Australiako irakasle bat ezagutu nuen, Sandra Hale, eta harremana egin nuen. Sandra argentinarra da jatorriz, Australiara 14 urte zituela joandakoa. Oso ikerlari emankorra da, eta oso esku-zabala izan zen nirekin. Hainbat lagundu zidan, bibliografia eskaini, eta abar. EHUKo lanera itzuli nintzen, eta behin, Gasteizko bulegoan nengoe-la, Sandraren e-posta mezua. Haren mezua jasotzea ez zen harrigarria, kontaktuan geunden-eta, baina mezu hartan beka baten deialdia aipatu zidan, Australiara joateko, lau hilabete eta urtebete arteko egonaldia egiteko.

Beraz, zeure burua aurkeztu zenuen beka hartara?

Bai. Ikerketa proposamen bat landu, eta bidali nuen. Oso proposamen landua, nire ustez, oso ona. Hamalau beka ziren, eta hamabosgarren gelditu nintzen. Ingelesa nire hirugarren hizkuntza zen, eta zientzian, medikuntzan... hainbat jakintza-arlotan lanean ari zen jendearekin lehiatzen ari nintzen, Eskandinaviako jende askorekin, eta Erresuma Batuko, Alemaniako, Italiako eta hainbat lekutako ikerlariarekin... eta horixe, hamabosgarren! Ezezkoa, beraz. Eta EHU*n* segitu nuen, Gasteizko Letren Fakultatean lanean. Eta halako batean, Australiako Gobernuaren mezu bat. Beka jasotako batek ezintasunen bat adierazi zuela, uko egin ziola bekari, eta aukera nuela. “Nahiko zenuke etorri?”.

Baldinbaitere!

Bai, bada! Espainiako Estatuan beka hura jasotzen lehena izan nintzen. Eta EHU*n* lau hilabeteko eszedentzia eskatu, eta joan nintzen Sidneyra. Han, tutore edo mentore bat izendatu zidaten, eta urtebeterako geratzeko esaten hasi zitzaidan. EHU*rekin* hitz egin nuen, eta urte sabatikoa eskatu nuen, hau da, soldata gabeko urte osoko baimena. Zazpi hilabetez euskal etxean bizi izan nintzen, baina igandero-igandero han egon beharra ere lotura



zen, eta bidaiatu ere egin nahi nuen. Beraz, Alemaniako lankide batekin bizitzera joan nintzen. Justu gure azpian, bizilagun bat genuen musikaria, oso jatorra, eta bera da orain ni Australian egoteko arrazoia, edo erruduna, gure amak esaten duenez.

Sidneyra joan zinen, baina Melbourneko unibertsitatean lanean zaitugu egun.

Bai. Beka bukatu eta Euskal Herrira itzuli nintzen, eskolak ematera. Handik gutxira mutil-laguna senar egin nuen, eta hura Australian, eta ni hemen, bi hemisferiotan banatuta biok... Harremanari eusteko modurik ez zegoen! Eta senarra etorri egin zen, zazpi hilabeterako, eta biok hemen ginela, bizimodua Australian egitea erabaki genuen. Hemen jaio zen gure Oihan, lehen semea, eta hark hiru hilabete zituela, nik hemengo lana utzi, eta joan ginen. Ordurako, dekanordea nintzen EHUn [Letren fakultatea, Gasteiz], baina dena utzi eta Australiara. Han, hutsetik hasi behar izan nuen, benetan hutsetik.

Zer esan nahi duzu, "benetan hutsetik"?

Lanik ez nuela, nahiko esku hutsik joan nintzela. Tesia EHUtik Sidneyko University of New South Wales-era aldatu nuen. Nire tesi zuzendari berria, Stockholmen ezagututako argentinarra alegia, eskola batzuk eskaintzen hasi zitzaidan, as-

tean pare bat aldiz. Urte gogorrak izan ziren, aitona-amonen eta hemen ohi den familiaren laguntzarik gabe. Eskerrak tribuari!

"Tribua"...

Sidneyn pareko bizilaguna Ingalaterrako neska bat nuen. Adinkide ginen, baita gure umeak ere, eta ikaragarri lagundu genion elkarri, baina ikaragarri! Indarra egin behar da, klan edo tribu moduko bat sortu, eta aurrera. Ingelesez ere halaxe da esaera, ezta? "Herria behar du, umea hazi ahal izateko". Gure blokeak Habia zuen izena, eta egia esan, Melrose Place modukoa zen. Lanari dagokionez, eskola-ordu batzuk ematen nituen, baina *casual* kontratu modalitatea nuen, ordukakoa, eta soldata dezente bat atera ahal izateko, hiru unibertsitatetan ibili behar izaten nuen, atzera eta aurrera. Batean eskola eman, autoa hartu eta korrika, hurrengo unibertsitatera, hurrengo eskola-ordua ematera... Eta iruditzen zait, nire sentipena da, bertakoek baino hamaika aldiz gehiago saiatu behar duzula, lan gehiago egin, gai zarela erakusteko. Atzeratzen bazara, eskuinetik pasatuko zaituzte! Eta zenbat aldiz entzun behar izan dugu etorkinok: "Ez daukazu bertako esperientziarik!". Eta Kolonbia, India, Iraketik joandako jendea. Edo ni neu. "Hemen bertako esperientziarik ez, baina beste

hamaika lekutakoa badugu!". Alde horretatik berezi samarrak dira Australian.

Zenbat urte pasa ziren lan egonkor bat bilatu arte?

Hamar urte-edo. Umeak txikiak ziren, eta alde horretatik ondo etorri zitzaidan, ze denbora pila pasatu dut haiekin, ordu-luzeak hondartzan, naturan, bizilagunekin...eta uste dut haurtzaro oso polita eta sana eman diedala alde horretatik. Sidneyn bizitzeak, hala ere, badu txarrik, ezinezkoa baita han etxea erostea. Errentan bizi ginen beti. Hong-Kongen ostean, munduko bigarren hiririk garestiena da.

Horregatik joan zineten Sidneytik Melbournera?

Ez. Tesia bukatu nuen, eta bitartean curriculumak batera eta bestera bildaltzen jarraitu nuen, itzulpengintzan ez ezik beste zenbait arlotan ere lana bilatzen aritu nintzen, baina ez nuen lortu. 2016aren bukaeran, berriz, postu bat atera zen Melbourneko RMIT unibertsitatean, *senior lecturer* mailakoa. Curriculumak bidali nuen. Hiru hilabete igaro, eta berririk ez. Egun batean, interprete lanean ari nintzela, mezua, RMIT unibertsitatetik, ea hara joango nintzen, elkarrizketa egin nahi zidatela. Eta oraingo lanpostuaren jabe egin nintzen, eta Sidneytik Melbournera joan ginen, ordu arteko bizimodua eta tribua atzean utzita.

Zenbat kilometro daude Sidneytik Melbournera?

878 kilometro. Melbournera joan, eta senarrari ama gaixotu zitzaion. Eta ama zaintzera etorri zen Londresera. Ni lan berrian hasi nintzen, lanaldi osoz; gure bigarrena ere, Nahia, eskolan hasi zen: ni lanean, bi umerekin, inor ezagutzen ez nuela, bakarrik, senarra Londresen... Tribua sortu behar izan nuen berriz, eta tribua sortzea ez da lantegi erraza. Denbora behar du. Hala eta guztiz ere, egoera zailek bizitzari beste modu batean begiratzen irakasten dizute. Erresilienteagoa bihurtzen zara, gauza txikiak baloratzen ikasten duzu.

Melbourneko unibertsitateko lanak ekarri zintuen Gabonetan Euskal Herrira.

Bai. Unibertsitateko itzulpen sailean

hasi nintzen, irakasle eta ikerlari. Las-ter, buru izendatu ninduten, saila azpi-koz goratu nuen, hainbat aldaketa egin nituen. Halako batean, neure buruari esan nion, "Erika, ikertzeko pribilegioa duzunez, eta lanaldi osoan, ez jardun etengabe artikuluak argitaratzen beste zenbait ikerlarik besterik ez irakurtzeko!". Nik gizartearen onura lortzeko erabili nahi dut nire jakituria. Australiako Itzulpen eta Interpretateen Elkarte-ko lehendakari ere izendatu ninduten -2000 kide ditu elkarteak-, eta nire profil publiko hori baliatuz, gobernuarekin harremanetan jarri nintzen eta zenbait gauza aldatzeko elkarlanean hasi ginen.

2020ko pandemiaren garaian.

Bai, populazioari mezuak helarazi behar zitzaizkion -hainbat hizkuntzatan, gainera-, eta itzulpengintza gobernuaren agenda politikoan jarri zen, edo interesetan. Baina gobernuak hedabideen bidez zabaltzen zituen mezuen itzulpenak txarrak ziren hasiera batean, eta hedabideen atentzioa jasozten hasi zen itzulpengintza arloa. Las-ter, osasun sailak CALD (Culturally and Linguistically Diverse) COVID aholkulari taldea sortu zuen, akademiko-

funtzionarioz, burokrataz, GKEetako kidez, medikuz, pediatraz, adinekoen zaintzailez... Eta hor parte hartu nuen.

Itzulpenen egokitasuna zen zure ardura.

Itzulpen poliziarena egiten hasi nintzen, nahi baduzu. Itzulpen desegokiak antzematen, haiek itzultzaileen elkar-teko kideei bidaltzen, halako eta hala-ko hizkuntzetako itzulpenak gainbegi-ratzeko eskatzen... Halaxe hasi ginen lanean. Denborarekin, nire lanak eta ahaleginak benetako errespetua eta estimua jaso zuten, eta horrek elkar-lanerako oinarri sendoak eraikitzea bideratu zuen. Gure itzultzaile elkarte bertako Komunitate Etnikoen Fede-razioarekin lanean hasi zen, ikusirik itzulpenak txatxuak zirela, eta proiektu bat landu genuen elkarrekin, irakur-leak, mezuaren jasotzaileak, kontuan hartzen hasteko, jasotzaileak itzul-penaren prozesu osoan sartzeko. Eta itzultzaileek itzulpenak egin, eta dena delako hizkuntzako jasotzaile batzuek irakurtzen zituzten, testatzen, mezu-aren helburua benetan jasotzen ari zi-ren ikusteko. Gobernuak finantzatuta, itzultzaileen elkartearen itzulpen sozia-

lerako protokolo nazionalak garatu ge-nituen.

Baina ehunka hizkuntza ere badira Australian!

400 hizkuntzatik gora, eta Osasun Sai-lak, horietatik 63 hizkuntza lehenetsi zituen mezuak helarazteko orduan. Las-ter ohartu ginen gobernuaren mezuak ere ingeles, anglosaxoi, elebakar, kul-turbakarrek sortzen zituztela askotan! Gobernuan ere, hasi ziren jabetzen kul-tur sentsibilitatea zuen jendea behar zutela, baina kanpainak diseinatzen hasteko garaian bertan! Eta jabetu zi-ren beste zenbait kanpaina komunitate jakin batzuei, eta adin jakin batzuetako biztanleei, zuzendu behar zitzaizkiela, ez zuela balio mezu guztiak denei ber-din zuzentzea. Konturatu ziren popula-zioak behar duenaren arabera diseinatu behar zituztela kanpainak, eta horren arabera egin itzulpenak, herritarrak kontuan hartuz. Gobernuko aholkulari-tza taldea benetako esperientzia kolekti-bo aberatsa izan da, batzuetan elkarla-na zaila izan bazen ere. Baina gizarte-ko arazo eta erronkei irtenbideak bilatze-ko elkarlanean horrela aritzea benetako esperientzia positiboa izan da. ●

Otsailekoa, kalean!

**EUSKARA
IKASLEA
ZARA?
IRAKASLEA?**



- **EUSKARAZ IRAKURTZEKO OHITURARIK EZ DUTENENTZAT**
- **BALIAGARRIA EUSKARA IRAKASLEENTZAT**
- **10 ZENBAKI URTEAN**

Egin harpidetza aizu.eus atarian. Harpidetza digitala, paperezkoa edo digitala+paperezkoa.



Meritokraziaz

Gizarte zientzietan, eta soziologian bereziki, errepikatzen den gaia da meritokrazia. Modu sinplean-edo azalduta, kontzeptu horrek adierazten du norberaren kokapen soziala bere merituen edo esfortzuaren arabera dela. Hau da, gizarteko botere posizioak pertsonen eginahalen ondorio direla. Ideia horrekin, baina, ez gara deskribapenera mugatzen; izan ere, jendarteko antolaketa meritokratikoa balitz, justua ere izango litzateke aldi berean, kokapen boteretsuenetan leudekeenak horretarako ahalegina egin dutenak izango liratekeelako. Sinesmen edo ideologia kontua da, beraz.

Gizartea meritokratikoa dela sinisten al du baten batek? Inguruari begiratzeari nahikoa ez bada, gaiari buruzko lan gehienek argi adierazten dute jendeak ez duela uste gizarteak meritokratikoak direnik, haien eguneroko esperientziak aurkakoa frogatzen baitute: aginte postuetan egoteko bideek, eta bidezidorrek, esfortzuarekin hartu-eman txikia izaten dute ia beti. Esan gabe doa azterketa akademikoetan ere bazterreko ikuspegiak direla, probokazio ideologiko gisa, gehienetan. Kontzeptuak, hala ere, garrantzitsua izaten jarraitzen du zientzia sozialetan, esan dugu, gizarteari bere osotasunean aplikatuta ez bada, eremu zehatzagoei lotuta, hezkuntzari bereziki.

Hezkuntzaren soziologian asko hitz egiten da meritokraziaren auziari buruz. Paradoxikoki, gizartea bere osotasu-

Jendeak ez du
uste gizarteak
meritokratikoak direnik:
aginte postuetan
egoteko bideek
esfortzuarekin
hartu-eman txikia
izaten dute ia beti

nean hartuta gertatzen denaren kontra, hezkuntza sistema modu nahiko naturalean eta akritikoan esfortzuarekin eta merituekin lotzen da, oro har. Zer da ba nire ibilbide akademiko, nire esfortzuaren edo alferkeriaren ondorio ez bada? Noski, eskolan pertsona batek izan dezakeen prozesuan ahalegin indibiduala aldagai garrantzitsua da, baina beste hainbat indarrek eta faktorek ere eragiten dute aldi berean, askotan modu ezkutuan bada ere. Beste modu batera esanda, gizarteari buruz aritzerakoan modu argiagoan ikusten dugun bezala, hezkuntzan ere denek ez dute ahalegin bera egin behar emaitza antzekoak erdiesteko.

Hezkuntzaren soziologian eta beste hainbat diziplinan meritokraziaren



IKER IRAOLA ARRETXE
EHU-KO SOZIOLOGIAKO
IRAKASLEA

eta eskolaren arteko hartu-emanak ikertu duten ehunka, milaka, lanen artean, Paul Willis zientzialari sozialarena aipatuko dut, zeinak *Learning to Labour: How Working Class Kids Get Working Class Jobs* (Lan egiten ikastea: langile klaseko haurrek nola lortzen dituzten langile klaseko lanak) izeneko lan etnografikoan, izenburuan bertan agertzen den afera aztertu baitzuen 1970eko hamarkadan, Erresuma Batuko klase apaleko mutilen eskola batean. Eskolan ere gertatzen den desberdinkeria sozioekonomikoa- ren erreproduzioa azpimarratu zuen egileak, beste hainbat konturekin batera. Ikasleak, euren merituen arabera jakintzari buruzko joko garbi batean parte hartzen baino gehiago, etorkizunean beteko zuten posizio soziala bere egiten ari ziren, egilearen azterketa luzearen arabera.

Egia esanda, hezkuntzaren soziologian desberdinkeria erreproduzioaren ideia errepikatzearen zaleak gara, behar bada bestela gutxitan aipatzen dela iruditzen zaigulako. Eta hala izanik ere, egia da, halaber, hezkuntza sistema berdintasunerako tresna garrantzitsua ere badela. Bi ezaugarriak, erreproduzioa eta eraldaketa, ditu bere baitan aldi berean eskolak. Baina gaurkoan meritokraziaz ari ginenez, azpimarratzekoa da hezkuntza sistema ideologia meritokratikoaren gotorleku ere bilakatu dela azkenaldian, eta ikuspegi hori justua izatetik urrun dagoela. ●

Gure maitasun gosea



DOM CAMPISTRON



ANE ABLANEDO LARRION
IRAKASLEA

Maitasun erromantikoari buruzko mitoaz aritu nintzen azken kolaborazioan, hari buruz egiten ditugun espektatiba okerreaz, ematen diogun zentralitateaz, horrek ekarri ohi dituen min eta frustrazioez, bikote instituzioak dauzkan pribilegio bidegabeez. Hala ere, kide sexu-afektiboekin dugun harremantzeko modu disfuntzionala ulertzeko maitasunaren eraikuntza kulturala seinalatzea beharrezkoa bada ere, honen guztiaren jatorrian ez dago maitasunaz kontaktu diguten ziri moduko hori bakarrik, eta ezin da soziologiaren edo ideologiaren eremutik bakarrik esplikatu maitasunarekin dugun harreman (erdi) patologiko hori.

Badugu joera, inguratzen gaituen sistema sozialean (baizik ez) bilatzearena gizarte gisa ditugun jokabideen jatorria, edota hari (baizik ez) leporatzearena gure arazo sozialen arrazoi oro. Eta sistemaren ardurak zuritzeko inolako asmorik gabe, analisia partziala dela uste dut, eta gure funtzionamendu sakona azaltzeko aski hankamotza. Interpretazio hauek borobilak eta zirrikiturik gabeak balira, aski litzateke sistema politikoa iraultzea gure jokamolde orokorra ere aldatzeko, eta ongi dakigunez, hori ez da egia.

Maitasun erromantikoaren eredua auzitan jartzea beharrezkoa da, bai, baina ez da nahikoa gertatzen zaiguna ongi ulertzeko, ezta sakoneko aldaketa bat eragiteko ere. Sakonean gure barruko erraiak daude, eta horien funtzionamendua ulertzeko norbanakoaren konfigurazio psikologikoari ere erreparatu behar zaio, baita gure nortasunaren eraikuntzaren prozesuari ere. Aldaketa erradikalak eragin nahi baditugu, bederen, gure garapen psiko-afektiboaren nolakotasuna begiratu behar dugu, eta hor egin aldaketak.

Amarengandik jaiotzen gara, eta afektibo-sexuala da harekin eraikitzen dugun lotura, ez dezagun ahantz. Mendekotasun afektibo betearen garaia osatzen dute bizitzaren lehen urte horiek, zeinetan atxikimendu-pertsona horrengandik eskuratzen dugun bai elikadura nutriboia, bai afektiboia ere. Horretaz nahikoa asebeteta, poliki mundu zabalagora ateratzeko moduan sentitzen hasten gara, etxean jasotako babes horrekin erronka horretarako behar dugun segurtasun sententzia nahikoa dugula. Hala behar luke, behintzat.

Amarekikoa da gure lehen harremana, edo *maternage* funtzioa betetzen duen pertsona horrekikoa, eta horrek ezartzen

du geroko gainerakoen patroia. Horregatik da hain sutsua beste pertsona batekin sexualitatea eta gorputza partekatzea, eta horregatik dauka norbaitekin intimitatea sortzeko halako potentzia: bizitzaren oinarrian dagoen lehen amodio istorio horren oihartzuna dakarkigulako. Eduki baldin bagenuen, berriz bizi nahi dugulako. Baina nahikoa asebete ez baginen, eta horretara noa, horren behar gorrian gaudelako, helduak izanik ere. Hautzaroan baizik zentzua ez duten erlazio sinbiotiko horienak, alegia.

Gure jendarte hau oso afektiboki mendekoa da, zergatik eta azkarregi izan garelako mendekotasunetik bidaliak, autonomia ahalik eta azkarren erdiesteko hala egin behar zelako uste ustelean. Horrek hutsunea dakar, eta horren sententzia da, hain zuzen ere, gizarte gisa bereizgarri dugun ez asebetetzearen oinarrian dagoena, mendekotasunezko harremanetara aldez aurretik prestatzen gaituena. Harreman sexu-afektiboak beste modu batekoak izango badira, horrantz begiratu beharra dago, hor dagoelako gure maitasun gose gehiegizkoaren jatorri psikologikoa. Hala ez balitz, ipuin arrosek ez lukete gudan halako efektu suntsizailerik eragiteko gaitasunik edukiko. ●

Genozidioa gelditzeko, BDS eta gehiago



ITZIAR MORENO
EUSKAL PERTSONA
POLIFAZETIKOA

Nazioarteko Justizia Auzitegiak erabaki historikoa hartu berri du genozidioari buruzko konbentzioan, eta Hegoafrikaren salaketaren onargarritasuna berretsi. "Israelek Gazan herri palestinarraren aurkako ekintza genozidak egin ditu, egiten ari da eta egiten jarraitzeko arriskua du" esan, eta Israeli agindu dio ekintza genozida oro gelditzeko, bere militarrek ekintzok eragozteko, eta bermatzeko elikagaiak, ura, botikak eta premia humanitarioak Gaza okupatu eta setiatuan sartzea. Zergatik ez dute euskal alderdiek gauza bera esaten edo, are, egiten? Euren poltsikoan interesak galarazten dielako, noski! Hipokrita ustelak, etxean ahoa bete giza-eskubide duten horiek beraiek. Zorritzarrez, itxurazaleak izateaz gain, hiltzaileen kolaboratzaile ere badira. Zein izen merezi du, bestela, genozida babes ten eta laguntzen duenak?

Izan ere, EAJren gobernuak ekonomikoki sostengatzen du genozidioa. ARGIAk argitaratu zuen sarraskia hastean: euskal enpresek ia 200 milioi euroko produktuak saldu zizkioten Israeli 2022an eta, 2023ko lehen erdian, kopuru hori %52 handitu zen. EAEko ekoizpen gehien erosten dituzten hogeit hamar herrialdeen artean kokatzen da estatua sionista. Irabazien erdia baino gehiago CAF enpresari dagokio, zeinaren %3

Eusko Jaurlaritzarena den. Bada, euskal gobernuak badu ardura zuzena, euskal enpresek beste hainbeste eta, Palestinarekiko Erantzukizun Plataformak al-dizkari honetan berriki idatzi duen moduan, herritar guztiok ere badugu gure ardura.

Hitzetik jardunera igarotzea baizik ez dago. Besteak beste, Boikotak, Desinbertsioak eta Zigorak (BDZ) biderkatu eta egiazko bilakatu behar ditugu. Hegoafrikako apartheid-aren aurkako mugimenduan oinarrituta eta Israeli presio egiteko, 2005ean, Palestinako gizarte zibileko erakundeek (170 sindikatu, alderdi politiko, errefuxiatu sare, emakume elkarte, antolakunde, herri erresistentziako batzorde eta gizarte zibileko bestelako taldeek) BDZ mugimendua abiarazi zuten. Lorpenak nahikoak izatetik urrun badira ere, dagoeneko urrats esanguratsuak eman dira; esaterako, hainbat estaturen gobernuak Israelen dituzten inbertsioak bertan behera utzi dituzte, Suedia, Norvegia, Zeelanda Berria eta Luxenburgo, kasu.

BDZtik hasi eta ekintza zuzeneraino, egite oro da beharrezko bezain zilegi. Ditugun tribuna, bide eta molde guztiak erabili behar ditugu, gehiegi gertatu delako gure begien aurrean; geratzen diren palestinarren bizirautea denbora kontua baizik ez delako. ●

Lagunak



LEIRE NARBAIZA
ARIZMENDI
IRAKASLEA

Lagun hitzak euskaraz esanahi asko dauzka. Pertsona izan liteke, kidea, hurkoa, kamarada, laguntzaile, bikotekidea, adiskidea. Azken finean, bizitzan zeharreko edo momentu puntual batzuetako bidaidea dela adierazten digute berbok: bidean laguntzen diguten horiek. Akonpainatu, batzuetan, beste batzuetan premiak betetzeko zerbait egiten dute. Barre eta negar egiteko, borrokan eta haserrean jarduteko. Askotan barrua askatzeko erabiltzen ditugu, edo gure arazoez ahazteko. Sarritan, elkarrekin egiten dugu lan. Maiz, taldekideak gara, helburu jakin batzuen alde (edo kontra) ibiltzen

gara. Denak ezinbestekoak pertsona guztiondako, munduan aurrera egiteko, animalia sozialak garelako. Misanthropoenak ere beharrezkoak ditu zentzu zabalenean baizik ez bada ere.

Dena dela, lagun batzuek urteak irauten dute, lagun-minak, bihotzeko lagunak. Umetan ezagututakoak, edo ez. Sarriri elkarrekin egon barik ere, konfiantza osoa jar genezake eurengan. Halakoak izatea itzela da.

Nahi baino gutxiago elkartzen naiz eurekin, baina egon ostean indarberrituta eta irribarrez itzultzen naiz etxera, energia direlako. ●

Ubelduak moretuz, tortura itzaletik argitara



NEKANE TXAPARTEGI
KAZETARI FEMINISTA

1 999ko martxoan Aiztondo bailaran jazotako gertaera latzak ez ziren eraso isolatuak izan, Espainiako Estatuak Euskal Herriaren aurka emandako beste urrats errepresiboaren zati baizik. “*Todo es ETA*” (Dena da ETA) doktrinaren menpean, atxilotu eta inkomunikaziopean gu Madrilgo Tres Cantosen bortizki torturatzen gintuzten bitartean, Joxelu Gerestari (*Ttotori*) bizitza kendu zioten. Gertaera horiek, beste helburu batzuekin batera, abian zen Lizarra-Garazi prozesua etetea zuten xede. Torturatzailleek argi utzi zidaten komisarian: “Vosotros estaréis en tregua ¡Nosotros no! [Zuek suetenean egongo zarete, geu ez!]”.

Urte luzez bezala, garai horretan ere, torturaren erabilpena ETaren jarduerari emandako erantzun gisa saldu nahi izan zuten. Guk badakigu, ordea, bertsioak eraikitze eta gure ahotan horiek baieztatze torturatu gintuztela, horrela neurri errepresibo gehiago legitimatzeko bertsio ofiziala eraikitze. 18/98ko epaiketa politikoaren muin izango zena.

Tortura izan da ideiak eta ideia horiek defendatzen eta horien alde borro-

Bortxatutako
gorputzetik hitz eginez,
25 urte geroago ozen
esateko nire emakume
gorputza guda zelai
politiko bihurtu zutela

katzen dituztenak gelditzeko estrategia. Inpunitate osoz, inkomunikazioaren babespean Intxaurren eta Madrilgo komisariatan sistematikoki egin dena. Estatu aparatu horrek ondo funtzionatu eta estali du torturaren dimensio bel-durgarria Euskal Herrian, klase politikoaren, justizia aparatuaren, medikuen eta medioen konplizitatearekin. Eta horrela utzi nahi du afera, Espainiako Estatuan ziegatan ezkutatuta eta gure hildakoak ahanzturan utzita.

*Ttotori*ren kasuan, tortura azken muturreraino eraman zuten, heriotzaraino. Eraiketa suizidioz mozturrotuta. Zoritxarrez, oraindik ere ez dakigu zer gertatu zen, baina badakigu zer ez zen gertatu. Egile zuzenak ez badakizkigu ere, badakigu nor den arduraduna. Estatu terrorismoaren aurrean, gu, torturatuak, torturaren gaitzetik bizirik ateratakoak, lekuko garrantzitsuak gara. Lekukotza horiek itzaletik argitara ateratzen lagun dezaketen “hildako” bizidunak. Gure bizitzak torturatzailen esku egon ondoren, horien kontrola hartzeko urratsak egin nahi ditugun subjektuak. Bortxatutako gorputzetik hitz eginez, 25 urte geroago ozen esaten dut nire emakume gorputza guda zelai politiko bihurtu zutela. Horren aurka, torturak eragindako ubelduak moretuz, salatuz, kontatuz jarraituko dudala memoria historiko feministari ekarpena egiten.

Suntsitu gintuzten, doktrinak eraiki, *Ttoto* kendu ziguten, herria izutu nahi izan zuten. Baina zutik diraugu eta ez gara geldituko egia jakin arte. *Ttotori*, bere etxekoei, ondorengo belaunaldiei eta Euskal Herriari egia zor diegulako. ●

hamaika

Ogibide berdinbide

Zein da emakumezkoen rola ogibide maskulinizatuetan?









Saio berria
asteartero 22:00etan Hamaika Telebistan



HIZKI PIZTI

Ikas dezagun irakurtzen eta idazten

Jolasaren bitartez irakurtzen eta idazten ikasteko **material pedagogikoa**.

Bai ikaskuntza-irakaskuntzan, bai etxeetan erabili daitekeena.

Alfabetoko hizki bakoitzak eta hortaz soinu bakoitzak **Euskal Herriko animalia bat** irudikatzen du.



30€

Bidalketa gastuak 5€.
Bidalketa doan 40€-tik gorako erosketetan.

Kaxa barruan aurkituko dituzu:

Karta handiak: Hizkia larriz eta xehez aurkezteko, animalia irudiari eta haren izenari lotuta.

Karta txikiak: Umeez manipulatu, erabiltzeko eta jolasen bidez hitzak osatzeko.

Laburpen-karta: Kontsultarako, animalia guztien irudiak, izenak, taldeak eta dagozkien hizkiak.

Posterra: Animalia guztien bilduma, dagozkien hizkiekin aldamenean.

Bideoak eta webgunea: Hizkien ahozotasuna lantzeko, karta bakoitzari lotutako ipuin, kanta, olerki, bertso, kontakizun, aho-korapilo, esamolde eta antzerakoen ikus-entzunezkoak webgunean eskuragarri.

Liburuxka eta jolasak: Materialaren argibideak emateaz gain, hainbat jolas proposatzen ditugu karta txikien bidez irakurketa eta idazketa lantzeko. Memoria, azkartasuna, arreta, irudimena, analisia, kooperazioa, hiztegia... garatzeko jolasak.

Egileak: Amaia Egidazu, Iñaki Sanz-Azkue, Lore Erriondo eta Eñaut Aiertzagüena.

EL SALVADOR

Nayib Bukeleren atzaparretan katigatuta

Hauteskundeen emaitzak ez du inor sorpresaz hartu El Salvadorren: azken bost urteetan presidente izan dutenak horretan jarraituko du gainontzeko bostetan ere. Berrautaketa lortu duen herrialdeko lehen presidentea da; besteak beste, konstituzioak debekatzen duelako. Baina, botere judiziala lagun, berriz hartu du kargua. Salbuespen egoera betean lortu du, hain

zuzen ere: dagoeneko bi urtez daude giza eskubideak etenda herrialdean, 70.000 atxilotu baino gehiagorekin. Nayib Bukelek menderaezin jarraitzen du, botoen %85 eskuratu duela esan eta bere buruari koroa jarri dio. Eta berarekin bat ez datorren oro herrialdearen etsai bihurtu du. "Oposizio guztia hauts bihurtu da", adierazi zuen otsailaren 4ko hauteskunde gauean.

 MARIA ORTEGA ZUBIATE

Zuri beltzezko erretratua da El Salvadorko oraina. Zuri beltzezkoa, ez atzera begirakoa delako; markoan zuria edo beltza baino ez daudelako baizik. Otsailaren 4ko hauteskundeetan aukera ugari zeuden, paper eta kolore ugari, eta presidentea eta legebiltzarreko diputatuak bozkatu zituzten. Baina praktikan ez da horrela izan: Bukele eta bakea, ala basakeria zituzten aukeran salvadortarrek. Edo horrela zirudien, eta horrela saldu zuten.

Politika berriaren promesa gisa agertu zen panorama nazionalean Bukele, duela bost urte. Aurretik, Antiguu Cuscatlaneko alkate izan zen –San Salvador alboko hiri bat, aberastasun nabarmen-

na duena-. FMLN alderditik lortu zuen garaipena, gerrillari ohien alderditik. Handik, San Salvadorrera, hiriburura, egin zuen salto, orduan ere FMLN alderdiarekin. Alkatetza horretan zegoela, liskarrak sortu ziren alderdia eta bere artean, eta bertatik kanporatu zuten. Horrek ez zuen Bukele gelditu, ordea, eta bere ibilbide politikoan pauso bat harago joan zen: herrialdeko presidente izateko aurkeztu zuen bere burua. Alderdirik ez, baina.

Egoera horrek eraman zuen bere alderdia sortzera: Ideia Berriak. Eta izen horixe bera zen bere kanpaina nagusia: bipartidismoaren aurkakoa, ideia berrien aldekoa. Alderdia sortu berria zegoen 2019ko hauteskundeetarako, eta

bere horretan ezin izan zuen aurkeztu: Aldaketa Demokratikoa alderdiak babestu zuen bere hautagaitza, zentro ezkerreko alderdia hura. Hori ere ez zen ondo atera, ostera, Justizia Auzitegi Gorenak bertan behera utzi baitzuen alderdi hori. Hauteskundeetarako denbora gutxi falta zela, GANA (Gran Alianza por la Unidad Nacional) zentro eskuineko koalizioarekin aurkeztu behar izan zuen hauteskundeetara. Gehiengo absolutua lortu zuen azken hauteskunde horietan.

Aurtengoak ez dira gutxiago izan. Lehen kontakteten arabera, 1,3 milioi boto lortu ditu, eta gehiengo absolutua izango du parlamentuan: emaitza guztiak publiko egin aurretik bere gehiengo absolutua aldarrikatu zuen Bukelek



hauteskunde gauean. Hain zuzen ere, datuak horren bizkor jakiteak, oraindik kontaketa amaitu barik egonda, iruzur kekek ere sortu ditu herritarren artean. Dena den, bera boterera heldu arteko bi alderdi nagusien (FMLN ezkertiarra eta ARENA eskuindarra) binomioa hautsi eta deuseztatu du. Otsailaren 4ko hauteskundeetan ere aurkeztu dira bi alderdi horiek, baita eskuin muturrean Fraternidad Patriota Salvadoreña; eskuinean eta ARENAtik oso hurbil, Fuerza Solidaria; eta ezkerrean, aldiz, Nuestro Tiempo. Dena den, alderdi horiek botoen ehuneko oso baxua lortu dute: Nuestro Tiempo baizik ez da pasatu 15.000 botoen langatik.

Baina Bukeleren aurretiko bi alderdi nagusiek ere ez dute egoera hobea: Bukele lehen aldiz presidente aukeratu zutenean, 2019an, FMLN 1,3 milioi bozka izatetik 300.000 izatera pasatu zen. Aurten 100.000 lortu ditu. Beherakada nabarmena da. Okerragoa izan da, ordea, ARENAREN kasuan: azken hauteskundeetan 857.000 boto atera zituen, aurtengoetan, oster, 97.000 azpitik, behin behineko emaitzen arabera.

Horrela, beraz, beste aukerak ezdeusak izan dira; eta ezdeusak ziren Nayib Bukele herrialdearen jaun eta jabe delako. "Hirugarren bidearen ideiak, polarizazioa amaituko zuenak balio izan zion aurreko hauteskundeetan. Uste dut

Bukeleren gobernuak hartutako lehenengotariko erabakia izan zen bizilagunek elkar salatzeko aukera ematea. "Horrek egiten duen gauza bakarra da komunitateko lotura guztiz suntsitzea"

gaur egun hori ahaztuta dugula, hain zuzen ere, ez dagoelako beste aukerarik. Aukera bakarra da bera", dio Maya Olivares antropologoak. Parlamentuaren gehiengoa bere alde, botere judizialean ere izan du eragina, eta bere aldeko magistratuak jarrita baimendu diote berrautaketa; herrialdeko konstituzioko sei artikuluk debekatu izan dute orain arte. 2021etik dator kontua, orduan egin ziren Justizia Auzitegi Goreneko aldaketak. Horretarako erabilitako taktika

hau da: sei hilabeteko baimena hartu du hauteskundeen aurretik, eta, horrela, berrautatzea ontzat eman du Justizia Auzitegi Goreneko Konstituzioko epaimahaiak.

Herrialdea bitan banatu da: konstituzioaren azken irakurketa hori bere egin dutenak, eta Bukeleren gobernu berrian konfiantza osoa jarri dutenak; eta egoeraz galdetuta bekozkoa jarri eta ahopeka kexatzen direnak. Tartean egon dira ustelkeria kasu ugari, *pandillekin* tratuak eta inkonstituzionalitatea bera. Baina Bukelek ondo ezagutzen du bere herrialdea eta tekla egokiak sakatu ditu. Herrialdea banatzea lortu du, eta alde okerrean daudenak kriminalizatu ditu.

INDARKERIAREN MAMUA

Polarizazio horren erdian, edo are, muienean, indarkeria dago. Horixe uste du Maya Olivares antropologoak. "Denak du zerikusia indarkeria zilegi egitearen narratibekin. Giza eskubideak triangelu baten barruan ulertzen dira hemen: segurtasuna, demokrazia eta giza eskubideak. Eta ulertzen da ezinbestekoa dela eskubideak urratzea segurtasuna bermatzeko. Estatuek erabakiak hartzen dituzte segurtasunaren izenean".

Ulerkera horretatik abiatuta heldu zen 2022ko martxoan oraindik indarrean dagoen salbuespen egoera. Baina Bukelek egoera muturrera eraman





REUTERS

eta herrialdea militarizatu eta hertsiki mugatu badu ere, segurtasun politika errepresiboak ez dira albiste El Salvadorren. “1992ko Bake Akordioetatik hona, segurtasun politikak beti izan dira zapaltzaileak. Ez da gauza berria Bukelek militarrek ateratzea, segurtasun plan guztietan atera dituzte”, azaldu du Olivaresek.

Bukelek, beraz, ez du paradigma aldatu eragin, bere horretan. Herrialdean egiturazkoa den arazoa da indarkeria. Historikoki, *mara* edo *pandilla* kriminalak izan dira herrialdean eta Erdialdeko Amerikan indarkeria nonahi barreiatu duten aktoreak. El Salvador, Honduras eta Guatemala –azken hori gutxienez gerrarik gabeko herrialderik bortitzeak izan dira urte luzez. Datuek ere hori erakusten dute, El Salvadorren bertan, *pandilla* horiek su etenak apurtzen zizutenean hildakoak ehunka zenbatzen baitziren: 2015ean, kasurako, 100.000 biztanleko 105 hilketa egon ziren. Konparaziorako, azken datuen arabera, 2023an hirura jaitsi zen kopurua.

Egoera horrela, indarkeria indarkeriaz borrokatzea izan da gobernuak hartutako erabaki gehienaren oinarria. “Badago dioenik, ironiaz betiere, El Salvadorren hiru *pandilla* direla nagusi: letrak, *Mara Salvatruchari* erreferentzia eginez; zenbakiak, *Barrio 18* gatik; eta hiru letrak, PNC gatik (Polizia Nazionale Zibila)”, dio Roberto Valencia El Salvadorren finkatutako Euskal Herriko kazetariak bere *Carta desde Zacatraz* liburuan. Eta horixe da, hain zuzen ere, Bukelek berak ere indartu duena. Oraingoan, oster, neurri barik egin du: “Al-

daketa da oraingoan militarrek katerik barik atera direla”, dio Olivaresek. Antropologoa bat dator Valenciarekin: “Indarkeria soziala izatetik estatala izatera pasatu da: biktimagilea ezberdina da. Lehen ere bazegoen, noski, elkar elikatzen zuten *pandillek* eta poliziek. Baina gaur egun poliziak eta soldaduak dira beldurraren figura”.

BIKTIMAK, ALBO-KALTE

Hogei hilabete dira Aidee Marquezek bere iloba [izena ezkutuan mantendu du, babesteagatik] azken aldiz ikusi zuenetik. Goiz batean etxe paretik auto ezezagun ugari pasatzen ikusi zituzten, eta, arraroa egin bazitzaion ere, ez zion garrantzirik eman: Amaren Eguneko bazkaria zuten eta horixe prestatzen ari ziren. Bazkaltzen amaitu bezain pronto, oster, auto horietan ikusitako jendea hurbildu zitzaion etxera, bere ilobaren izena esan eta eraman egin zuten: “Ez ziguten ezer azaldu. Galdetu genien agindurik ba ote zuten, eta ez ziguten ezer erakutsi”. Orditik ia bi urte pasatu dira, ilobarekin ez dute berbarik egin, eta herrialdeko beste muturrean dagoen kartzela batean dagoela uste dute; uste, ez dutelako berarekin telefonoz ere berba egin. Orain, atxilotuaren bi seme-alaben kargu geratu da familia: 22 urteko alaba eta 14ko semea. Ondo gogoan dute ama atxilotu zuten eguna, baita ondoren ere, gau betean agertzen baitziren poliziak, semearengatik galdezka. Ama eramateko arrazoia, herrialdean atxilotutako beste milaka pertsonen berbera: legez kontrako elkarteko kide izatea.

KARTZELETAN ERE, SALBUESPEN EGOERA

Bukelek salbuespen egoera dekretatu zuenean, alarma asko piztu ziren giza eskubideen defendatzaileen artean, eta horietako bat zen kartzeletako egoerarena. Izan ere, atxilotuak milaka kontatzen hasi aurretik ere, kartzeletako egoera jada kezagarria zen. Ordurako, kartzelek beren edukiera gaitzuta zeukaten: %130ean zeuden beteta. Salbuespen egoerak kopuru hori areagotu baino ez du egin: UCA Universidad Centroamericana giza eskubideen behotkiak 2022ko abuztuan kaleratutako ikerketa batek zioen kartzelak edukieraren %247,6an zeudela.

Polemika horietan zeudela heldu zen Bukelaren azken obra faraoikoa. *Cecot terrorismoaren konfirmamendu zentroa* izena eman zion “megakartzela” ezizenez ezagutu den kartzela erraldoiari, 40.000 presorentzat diseinatua. Amerika osoko handiena izateko eraiki zuten, eta presoak guztiz inkomunikatuta egon zituzten. Azken datuen arabera, 12.000 preso inguru dauke bertan. Biztanle kopuruarekin alderatuta, El Salvador da munduan preso gehien duen herrialdea.

Marquezenaren antzerako kasuak artatu ditu Olivaresek Servicio Social Pasionista (SSPS) gizarte erakundeak, giza eskubideen aferatik. Marquez iloba bezala, 70.000 lagun baino gehiago atxilotu dituzte akusazio berberekin, eta gobernuak berak onartu du horietatik asko (6.000) arrazoi barik egin zituztela. Olivaresek dio atxilotuak masibo horiek mendeku politikan oinarrituta daudela, *pandillen* indarkeriaren ordainetan errepresioa beste lagun askok pairatu dutela: “Erraza da jendeak esatea ‘ustel dadila kartzelan’. Ez dio axola pertsona bat errugabea bada, gainontzeko errudunek merezi dute”.



AFP

Albo-kalteak dira, beraz, pertsona horiek: “6.000 lagun kartzelatu dituzte arrazoirik barik, eta gero publizitatea egin dute esanez askatu dituztela. Atxilotzeak eraginik izango ez balu bezala, berarengan eta ingurukoengan; baina atxilotuetako asko dira etxera dirua eramaten dutenak. Nola espero dute atxilotoketa batek ez izatea eraginik familia edo komunitate batean? Oso deskonektatuta daude errealitateetik”, ziurtatu du Olivares antropologoak.

Baina gobernuaren ikuspegi hori jende askok egin du bere, hori ikusi du Olivaresek; baita salbuespen egoera jasan eta atxilotu dituztenek ere. “Salbuespen egoera ondo dagoela dio jende askok, baita atxilotuta izan direnek ere”. Horren alde agertu diren biktimek ere diote “gaiztoak” atxilotu behar dituztela, baina “gaiztoak” atxilotze horretan jende asko sartu dela tartean, arrazoirik barik: “Atxilotuta dagoen jende asko *pandillen* biktima izan da, eta argudio horren pean atxilotu dute orain”.

DISIDENTZIAK, HORMARA

Olivaresek berretsi du herrialdea polarizatuta dagoela, aldeko ala etsai bihurtzen dela jendea, eta badu horretarako

arrazoirik. “Ezinbestekoa da etsaiak sortzea”, hortik abiatzen da antropologoa. Etsai komuna indarkeria izan da urte hauetan guztietan, eta horri aurre egin diote indarkeriaz. Baina behin, teoriarik, horien mehatxua desagerrarazita, beste etsai berri bat bilatu du Bukelek: giza eskubideen defendatzaileak, edota, funtsean, berarekin bat ez datorren oro. “Bukelek gizarte zibilarren parte garenok erabili gaitu errudun gisa. Lehen *pandillak* ziren, beraien inguruan sortu zen etsaiaren ideia, eta egia zen: baina, behin horiek atxilotuta, etsai komuna geu gara, gizarte eskubideen babesleak”.

Antropologoak argi du ez dela ausazkoa atxilotuetako asko komunitateko prozesuetan parte hartzen duen jendea izatea. “Ez da kasualitatea, jende horrek bere eskubideak ezagutzen dituelako, badaki giza eskubideen defentsarako auzitegiak daudela. Komunitateetarako jende oso baliagarria izan den asko eraman dituzte: lurraren alde borrokan eta erresistentzian ari zen jendea, ekintza politikoak egiten ari zena”.

Etsaiak isilarazteko estrategia gisa ulertu du Olivaresek, baina ez hori soilik: gizarte sareak guztiz desaktibatze

asmoa ere nabaritu dio. El Salvadorko kasua, gainera, berezia da. Indarkeria bortitza pairatu dute urte luzez, *pandillak* mehatxu izan dira herrialdeko jende askorentzat. Baina *pandilla* ez da talde isolatu bat: *pandilla* komunitateen parte da, eta horrek deskonfiantza handia sorrarazi du. “*Pandilla* egitura bat da, gazte bakoitzak bere ama, aita, osaba eta beste dituelako eta horiek ere badaude egituraren barruan, nolabait. Horregatik da oso sentikorra”.

Komunitateko edonor *pandillaren* atzaparretan egon daitekeen sentsazio horrek beldurra zabaldu du herrialdean, eta gizarte saretzea oztopatu du: “Gure gizarte sarea ia ezereza da, mesfidantzaren logika egon delako urte luzez. Horrek mugatzen du gizarte sareak egonkortzea eta eragiten du mesfidantza handia egotea, jendea prozesu komunitarioen parte ez izatea”. Egoera horrela zela egin zuen eztanda salbuespen egoerak, eta are gehiago okertu zuen komunitateetan edota gizarte mugimenduetan sinets zezakeen jendearen papera. “Jende guztia desaktibatuta dagoela, salbuespen egoeran, beldurra ematen du desadostasun txikiena ere agertzeak. Egoera zail batean jarri zai-

tzake”, dio Olivaresek. Hori gutxi ez, eta Bukeleren gobernuak hartutako lehenengotariko erabakia izan zen bizilagunek elkar salatze-ko aukera ematea. “Horrek egiten duen gauza bakarra da komunitateko lotura guztiz suntsitzea. Bizilagunekin duzun edozein haserrekeraman zaitzake poliziarengana”, aztertu du antropologoak.

Hain zuzen ere, Olivares kide den SSPS erakundeak eta giza eskubideen aldeko beste zenbait elkartek salatu dute jazarri izan dituztela, eta atxiloteta saiakerak izan direla. Hari horretatik, erakunde eta kazetari ugari salatu dute atxilotutako jende asko aktibista politiko edo giza eskubideen defendatzaile izateagatik eraman zituztela, ez *pandillaren* parte izateagatik. “Ezer txarrik egin ez duenak ez du zertan beldurrik izan; beldur denak zerbait egingo zuen”, errepikatu du behin eta berriro Bukelek. Bada, bai, egin dute: giza eskubideak defendatu. “Esaten du giza eskubideak defendatzen dituenak *pandilleroak* defendatzen dituela: giza eskubideek kartzela onak eskatzen dituzte, justizia eskatzen dute, eta Bukelek dio ez dagoela horretarako denborarik”, laburbildu du egoera Olivaresek.

Marquezen ilobaren kasuak ere badu horren zantzurik. Herrialdeko departamenturik pobreeneko eta azpigaratueneko kide, komunitatearekin lotura estua du bere ilobak; hori dio Marquezek. Segundo Montes komunitatekoa da, eta bertan, gizarte sare sendoak dituzte, eta elkarte eta erakunde ugari. Bertako ekintza guztietan parte hartutakoa izan da Marquezen iloba, babesa adierazten zien beti. Bera bezala, Araceli Ramosen seme



“Bukelek dio giza eskubideak defendatzen dituenak 'pandilleroak' defendatzen dituela: giza eskubideek kartzela onak eskatzen dituzte, justizia eskatzen dute, eta Bukelek dio ez dagoela horretarako denborarik”

Maya Olivares, antropologoa

Jaime Diaz egoera berean dago. Eta bere osaba, eta bere lehengusua. Guztiak herrialdeko komunitate baketsueneko kide eta partaide.

Giza eskubideen defendatzaileei moduan egin diete eraso kazetari independenteei. El Faro agerkari digitalaren kasuan, espioitza, difamazioa, mehatxuak eta Ogasun Ministerioaren salaketa ugari jaso dituzte; egunkariaren egoitza herrialdez aldatzera derrigortzeraino.

ETORKIZUNA, ZIURGABEA

Duela bost urte izan zuen arrakasta eta sonarik ez du galdu Bukelek: are, irabazi duela uste duenik egongo da ziur. Bere forma eta estilo politiko berriak ekarri zion fama, herritarrei zuzentzeko era informalek lortu zuten jendearen artean bere mezua zabaltzea. Hasiara-hasieratik jaso zituen populista kritikak, hain zuzen ere, Twitter erabiltzen zuelako politika egiteko, edota ironia fina erabiltzen zuelako bere aurkarien aurka.

Azkenaldian, ostera, konstituzioaren aldaketa ezkerreko, autokrata edota diktadore izan nahia ere egozten diote. “Bera eta bere familia. Beraiek daukate boterea. Pertsona eta familia bat gurtzea da. Hori arriskutsua da, ideia mesianikoa da”, ohartarazi du Olivaresek.

Bukeleren beste bost urteek zein bide hartu dezaketen ikusteko dago orain. Familiako kideak preso dituztenek eta beren abokatuek espero dute behin hauteskundeak pasatuta epaitegiek martxa hartuko dutela, eta jendea kalera irteten hasiko dela. Dena den, parlamentuaren gehiengo bere alde izanda, ezin da norabide aldaketarik espero herrialdean. ●



ATXEGA JAUREGIA

JATETXEA

EGUNEKO ETA ASTEBURUKO MENU BEREZIAK
EKITALDIAK, OSPAKIZUNAK, FAMILIA TOPAKETAK...

USURBIL • 943 37 11 50 • www.atxegajauregia.com

Nerea Zubia Blazquez

“Erraz diogu ikastetxeen arteko lehia gainditu behar dela, baina errealitatean ez da hain sinplea”



Hezkuntza eskumenak deszentralizatu eta tokian tokiko eragileek erabakimen handiagoa izatea: aspaldiko aldarrikapena praktikara ekartzen ari dira herri ugarian, eta bide horretan aholkulari dabil Elhuyar. Uneotan hamar bat prozesutan buru-belarri dabiltzala eta eskaera gero eta gehiago dituztela kontatu digu Nerea Zubia Elhuyarreko Partaidetza eta Eraldaketako arduradunak: “Udalerriek helarazten dizkiguten bi kezka nagusiak segregazioa eta hizkuntza dira”.

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Gurean, zenbateraino dago hezkuntza sistema zentralizatuta, bai estatuko gobernuarekiko, bai erkidegoko gobernuarekiko?

Ulertzen badugu zentralizazioa gobernantza ereduaren arabera neurtzen dela, agerikoa da estatuko nahiz erkidegoko gobernuetik lotura oso estua duela hezkuntza sistemak. Baina hortik harago, bestelako praktikak ere badira, tokian toki. Gure ustez, deszentralizazioarako premisa da erabakiak hartzeko boterea banatzea, eta horretarako prest egon behar dugu. Uste dugu udalek protagonismo handiagoa izan behar luketela eta hezkuntzaren inguruko erabakiak beste plano eta espazio batzuetan hartu beharko lirakeela, baina horrek ez du esan nahi gorago dauden erakundeek beren ardura gutxitu behar dutenik.

Hezkuntza deszentralizatzea bada urtetako aldarrikapen bat. Zein

onura dakartza?

Ikusten dugu udalek protagonismoa hartzen dutenean hezkuntza eragileekiko elkarrizketak beste modu batera egiteko aukerak zabaltzen direla, funtzionatzeko eta harremanak egiteko moduak eraldatzeko aukerak. Azken finean, auzoa, herria, batzen gaituen eta gertu dugun lurraldean aritzeak erraztu egiten du zoru komun batera iristea. Beste arlo batzuetan parte-hartzea eta erantzun komunitarioak zabaltzen ari diren moduan (trantsizio energetikoa, jasangarritasuna, kultur politikak...), hezkuntzan ere hori da bidea. Gizarte erronka gero eta konplexuagoak ditugu, eta ezinbestekoa da horiei komunitarioki erantzutea, nahiz eta gizarte gero eta indibidualistago honetan zaila dugun.

Hori egin ahal izateko, hezkuntzan nahikoa eskumen al dute gure herrietako udal eta instituzioek?

Lege markoa lagungarria eta beharrezkoa da, baina ez dugu zertan zain egon. Eskumen horiek iritsi bitartean, lurra jorratu daiteke eta esaten dugun modu honetan funtzionatzen has gaitezke, udalerriek pisu eta ardura gehiago hartuta. Horretarako behar dira inplikazioa, ausardia eta baliabideak. Eskumenak ez dituztenez, batzuetan udalak ez dira horretan pentsatzen jartzen, “goitik dator eta ezin dugu beste ezer egin, mugatuta gaude”, eta egia da eskumena izateak beste toki batean jartzen zaituela (adibidez, baliabideak bideratzeko orduan), baina zirrikituak egon badaude eta udal baten ustez herriarentzat garrantzitsua den gaia baldin bada, urratsak eman daitezke, prozesu bat abiatu daiteke esperimentatzen hasteko. Guretzat, eskumena gaia ez da “hau zuk egin behar duzu eta beste hori nik”, konfluentziarako eta elkarlanerako espazioak sortzea baizik. Aukera baliatzea herrian gertatzen ari



“Esperientziak erakutsi digu tokian tokiko hezkuntza eragileak batzen dituzten egiturak aktibatzeak eta hezkuntza erronkei modu komunitarioan begiratzeak gauzak mugitzeko aukerak zabaltzen dituela”



denaz hitz egiteko, zein harreman sare ditugun, zein bide jorratu daitezkeen elkarrekin, nola antolatu aurrerantzean...

Deszentralizazioa ipar, EAEko Hezkuntza Legean jasotzen diren tokian tokiko Hezkuntza Kontseiluei funtzio inportanteak aitortzea izan da aldarrikapenetako bat, nahiz eta eragile ugari kritikatu duen azkenean urardotuta geratu dela kontseilu hauei emandako erabakimen ahalmena.

Udal eskola kontseiluak existitzen dira dagoeneko, eta batez ere kontsulta egiteko eta informatzeko baizik ez dira erabiltzen, baina sekulako potentziala dute. Administrazioa-ikastetxeak dinamika gainditu eta herri ikuskera jasotzeko eta politika publikoak proposatzeko espazio oso interesgarriak dira, besteak beste eragile ugari parte har dezaketelako

bertan: familiek, gazteek, hezkuntza ez formaleko eragile eta herritarrek... Guk gidatutako prozesu batzuetan, organo honi dituenak baino funtzio gehiago eman zaizkio, udal ordenantzaren bidez.

Hezkuntza gai gatazkatsua da herri askotan, uneotan.

Guk aurkitu duguna da herri batzuetan gatazka azaleratuta dagoela eta beste batzuetan tentsioa nabari dela, gutxi falta dela gatazkara jauzi egiteko... Errealitatearen arabera, giroa ezberdina da, ez da gauza bera bi ikastetxe dituen udalerria edo bederatziti dituen baina oro har tentsioa eta gatazka bai antzeman ditugu. Hainbat faktore ikusi ditugu atzean: ikasleen arteko segregazio sozio-ekonomikoa, beheranzko joera demografikoak matrikulazioan duen eragina, euskararen transmisioa... Erraz esaten dugu lehia gainditu eta elkarlana jarri behar

dela zentroan, baina errealitatean ez da hain erraza, eta ez da egun batetik bestera egiten den salto bat, prozesu luzeak dira. Teoria jakin badakigu, “ni”-tik “gu”-ra salto egin behar dugu, baina askotan gurea sentitzen dugun horretara lotzen gara, irmoki defendatzen dugu, eta adostasunak lortzeko gauza batzuk askatu egin behar ditugu. Norbere zentroaren jardunaren gainera, prozesua herriko hezkuntzaren eta herriko ikasleen mesedetan izango dela sinetsi behar dugu. Azken finean, ezberdinen arteko beharrek elkar ukitzen dute eta eremu berean ari dira denak, auzoan edo herrian.

Esperientziak erakutsi digu tokian tokiko hezkuntza eragileak batzen dituzten egiturak aktibatzeak eta hezkuntza erronkei modu komunitarioan begiratzeak gauzak mugitzeko aukerak zabaltzen dituela. Hori esanda, ikastetxe batean matrikulazioa gainbehera bada, ikasleen profilak lan handia ematen badu, irakasleen etorkizuna zalantzan badago... pertsona horren eguneroko kezkak horiek izango dira, eta horiei ere lekua egin behar zaie. Tokian tokiko prozesuak ongi daude, baina ez dira denaren soluzio, gobernutik bestelako neurriak ere hartu behar dira.

Nola jokatzeko duzue, gatazka giro hauetan?

Gure esku-hartzeen esperientzietatik hainbat gako identifikatu ditugu prozesuaren hasieran egin beharrekoak, egoera ahalik eta ongien bideratzeko. Bate-tik, eragileak nola dauden ezagutzea: nola daude herriko harreman sareak? Gaiari modu bateratuan erantzuteko baldintzarik ba al dago? Zer espero dute eragileek prozesutik eta zer emateko prest daude? Herrian elkarlanerako kulturarik ba al dago (eseri al dira noizbait mahai beraren bueltan, beste zerbaite-rako)? Halako espazio batera goazenean bakoitza bere bizipen eta motxilarekin dator, eta horri ere tokia egin behar zaio. Batzuetan eragile bakoitzarekin erronda bat egiten dugu, horretaz guztiaz hitz egiteko, beste batzuetan denok elkarrekin hitz egiten dugu, horretarako baldintzak baldin badaude; funtsean, landuko ditugun gaiekiko minak eta sentimenduak azaleratzea oso garrantzitsua da, prozesuak aurrera egin ahala gatazkak gora ez egiteko.

Bigarrenik, datu objektiboen gainean egoeraren diagnostikoa egitea, erradiografia partekatua. Datu berdinen gaineko irakurketak beti ez datoz bat, baina

inportantea da gutxienez irakurketa horiek partekatzea eta horretaz hitz egitea.

Hirugarrenik, erabakimen ahalmena duenak borondatea eta prestutasuna agertzea, baita lidergoa hartzeko ere. Adibidez, udalak jakin behar du interpelatuko dutela, erabakiak hartzeko eskatuko zaiola, baliabideak jartzeko, eta erantzun egin beharko duela.

“Landuko ditugun gaiekiko minak eta sentimenduak azaleratzea oso garrantzitsua da, prozesuak aurrera egin ahala gatazkak gora ez egiteko”



Hezkuntzaren zein arlo eta korapilori heltzen die zuen esku-hartzeak?

Guregana jotzeko duten kezkaren arabera, horri heltzen diogu. Batzuetan udalak deitzen digu, bestetan eskolak dira udalera jotzen dutenak, halako prozesu baten beharra helarazteko. Bi kezka nagusiak dira segregazioa eta hizkuntza. Hizkuntzaz ari garelarik, euskararen transmisioarekin kezkak ageri dira leku askotan. Eta segregazioaz jarduterakoan, ez dugu ikastetxez bakarrik hitz egiten, eskolaz kanpoko jardueretan ere desoreka handiak ikusten dira herrietan, jatorriari eta egoera sozio-ekonomikoari lotuta. Dena den, diagnostikoa egiterakoan herri horretan dauden beste hezkuntza erronka batzuk (edo beste alarma gorri batzuk) azaleratuz gero, horiek ere lantzen ditugu.

Praktikan, zuen esku-hartzea zertan datza?

Tokian toki, neurri egindako esku-hartzeak dira, baina hiru titular nagusi ditugu, denetan baliagarri: komunitatea eta parte-hartzea dira aldagai nagusiak herri baten eraldaketarako; hezkuntza trintxeretatik eta jarrera polarizatuetatik beharrean, herri ikuspegitik lantzea ezinbestekoa da; erronka sozialei modu kolektiboan erantzun behar zaie, bai-

ta hezkuntzan ere. Hortik abiatuta, eta lehen aipatu moduan, prozesua aurrera ateratzeko baldintzak sortzen ditugu (eragileei entzun, minei tokia egin...), diagnostikoak egiten ditugu (esaterako, zein dira matrikulazio datuak batean eta bestean?), datu horiek nola bizi ditugun interpretatu eta eztabaidatzen dugu, oinarri komun horretatik herri erronkak zein diren definitzen ditugu eta erronka horiei eusteko bide-orria diseinatu eta aurrera eramaten dugu. Bide horretan sortzen den koordinazio mahaia erabakigune bilakatzeko ahalegina ere egiten dugu.

Kezka nagusietako bat segregazioa dela diozu eta matrikulazioari lotutako diagnostikoak egiten dituzuela. Matrikulazioan eragiter a iristen dira prozesu hauek, adibidez?

Egia da arlo batzuetan eragin ahalmena mugatua dela, baina animatzen ditugu matrikulazio prozesuan eskumena duen Hezkuntza Sailari proposamenak egitera, eta kanal hori batzuetan zabalik aurkitu izan dugu. Adibiderik ezagunetakoa Erreterria herrikoa da, tokiko eskolatzeko batzordearen pilotajea, hori izan zen hain justu mota honetako gure lehen esku-hartzea, 2018an [tokiko eskolatzeko batzorde horrek lankidetzan jarduten du Eusko Jaurlaritzarekin, eta esku hartzen du *matrikula bizia* deituriko eskolatzekoan, alegia ikasturtean zehar EAE kanpotik etorritako ikasleen eskolatzekoan]. Bide beretik esperimintatzen ari dira beste hainbat herri, nahiz eta eragina mugatua izan. Herriko matrikulazio batzordetik jarraipena egiten dute eta matrikulazio irizpideen proposamenak helarazten dizkiote Jaurlaritzari.

Ikasleei eta familiei harrera ikastetxe bakoitzak egin ohi die, hori ere adostu eta bateratu dute han-hemenka: familiei nola aurkeztu herriko hezkuntza sarea eta eskolatzeko aukerak. Eta beste lan ildo bat: aztertzea hezkuntza formaletik eta ikastetxeetatik harago herriko bizitzan oro har gazte zaurgarrien parte-hartzea zein den eta zein aukera ditugun ekitatea bultzatzeko.

Hizkuntza da beste kezka nagusietakoa.

Bakoitzak bere ikastetxe barruan bakarrik heltzetik herri ikuspegiarekin heltzera igarotzea eta euskara indartzeko programak herri guztira zabaltzea, udalaren inplikazioarekin, bada aurre-



Eskumenak eskumen, "badaude zirrikituak, eta udalaren ustez herriarentzat garrantzitsua den gaia bada, urratsak eman daitezke, esperimentatzen has gaitzeko".

rapauso bat. Goazen indarrak batu eta sinergiak aprobetxatzera, erantzuna zabalagoa izan dadin eta baliabideak askoz hobeto aprobetxatu daitezten.

Bidean zein oztopo aurkitu dituzue? Zein dira erresistentzia nagusiak?

Gurea sentitzen dugunetik atera eta herri kohesioaren izenean zabaltzea kostatzen zaigu, aipatu dut lehen. Horrez gain, prozesu hauek ez dira linealak eta batzuetan atzera egiten dugun sentazioa egon daiteke, frustratu gaitzeko; horri lotuta, espektatiba errealak jartzea eta gardenak izatea garrantzitsua da; bigurutzetara iritsiko garela jakin behar dugu (batzuetan traba izango dira, beste batzuetan aukera berriak zabalduko zaizkigu); hainbatetan prozesuak pisutsuak egiten dira; eragileen arteko konfiantza urratu dezakeen edozein mugimendu oso arriskutsua izan ohi da, horregatik inportantea da espazioa zaintzea, diskrezioa eta konfidentzialtasuna mantentzea, elkarriketa paralelorik gabe; kanpo-faktoreek eta garai jakin batzuek tentsioa eta gatazka areagotu dezakete (Hezkuntza Legeak, dekretu berriek, matrikulazio garaiak...); eta gu bitartekariok desagertzeko unea iristen denean, bertigoa sor daiteke.

"Ikasleei eta familiei egiten zaien harrera adostu eta bateratu dute han-hemenka: familiei nola aurkeztu herriko hezkuntza sarea eta eskolatzeko aukerak"



Emaitza zein da, tokian toki?

Oro har, frogatu da eskumena Jaurlaritzarena izan arren eta Jaurlaritzak bere betebeharrak izaten jarraitu arren, tokiko eremuak eta gertutasun horrek aukera asko zabaltzen dituela. Eta artikulatu behar da herria, baina administrazioak ere artikulatu behar dira beren artean, elkarlana bideratzeko.

Eskola kontseiluei gehitutako funtzioak, tokiko eskolatzeko batzordea... aipatu ditut aurretik. Dena den, maila oso ezberdinetako lorpenak daude. Adibi-

dez, gauza hutsala dirudi, baina herri batzuetan arazo handiak dituzte Euskararen Egunekeo edota inauterietako desfileekin, ezin direlako elkar gurutzatu, guztiek herriko plazan amaitu nahi dutelako baina ez elkarrekin... eta hori gainditzea bera lorpen handizat bizi da.

Erreteriarako kasua da osagai hauekin abiatu genuen lehenengo prozesua, ibilbide luzeena duena, eta ikastetxeek hilabetero biltzen jarraitzen dute, esaten digute uste baino gertuago zeudela batzuek besteengandik, nahiz eta hasieran ez zuten hala ikusten, baina hitz egiteak eta erabaki batzuek elkarrekin hartu beharrak, elkar hobeto ezagutzeak eta bestearen egoerarekin enpatizatzeak hori dakar.

Eta ikastetxe horietako errealitatea aldatu da Erreterian?

Giroa aldatu da, elkarrekin ekintza bateratu askoz gehiago egiten dituzte, udal eskola kontseiluak orain beste funtzionalitate bat du eta gazteen eskola kontseilua aktibatzen doaz, ekitea lantzeko unitate didaktikoa egin dute elkarrekin, eskolatzeko batzordearen pilotajea hor dago... Egunerokoan gauza batzuek ez ziren aldatuko, baina beste batzuek bai, inpaktua daukatenak. ●

“”

Iruñeko edozein auzotan haurrak euskaraz ikasteko aukera izatea, hori da legealdirako helburua”

Joseba Asiron, Iruñeko alkatea

2015-2019ko legealdian Iruñeko alkate izan ondoren, bigarrenkoz errepikatzen du alkatetzan, ezker abertzaleak Iruñeko udal hauteskundeetan inoiz izandako emaitzarik onenaren ondoren, eta PSNrekin lotutako zentsura mozioaren eskutik. Abagunea ona dela dio, baina akordioa ez dela berez etorri azpimarratzen du. Hiriko gai ugari atera dira mahai gainera eta, oroz gain, argi du: “Eredua esportagarria da”.

Alkatetzara aparretan heldu ondoren, eguneroko zoru gogorra zapaldu behar da orain. Nola doaz lehen asteak?

Udala mugitzea Titanic itsasontzia mugitzea bezalakoa da. Horregatik, alde zurretik lan eskerga egina genuen. Prestatuak genituen taldeak eta lehen neurriak, lehen 100 egunak nola joango ziren ere bai. Orain, udalaren martxa %100ekoa da.

Zure lehenengo agintaldian ez zenuten PSNren beharrik izan. Orain, haren akordioarekin iritsi zara alkatetzara. Esango nuke eredu honetan aurrekoan baino erosoago ikusten zaitudala.

Aurrekoa ez zen erraza izan, bost zinegotzi besterik ez genuen – gehiengo hamalau da – eta menpekotasun handia genuen. Orain zortzi zinegotzi gara, beste indar bat dugu

eta eskarmentuan ere irabazi dugu. Horrez gain, oposizioan beste heldutasun bat dago eta PSNrekiko harremanak oso onak dira. Hala ere, badakigu une gogorrek ere izango ditugula, gauza askotan oso urrun gaude eta. Momentuz konfiantza giroa %100ekoa da. Daukagun udal erradiografia utzi digu Iruñeak, ez guk nahiko genukeen, eta horrekin aritu behar dugu.

Azken asteotan bolo-bolo ibili dira Orkoiengo alkate PSNko Alex Lópezen adierazpenak: euskaldunentzako zerbitzuak pribilegiotzat jo ditu. Zuek udal programa PSNko zinegotziekin negoziatu behar izan duzue. Ikusten duzu aldaketarik haiengan euskararekiko?

Euskararena urrunen gauden puntu horietako bat da. Guk printzipio nagusi bat dugu: Iruñeak bi hizkuntza ditu eta euskarak hor bere lekua behar du. Hori pedagogiaz azaldu beharko diogu PSNri, baina gure jendeare ere pazientzia eskatu beharko diogu, uler dezan ez dugula gehiengo osoa.



Etxebizitza izango da lehenetsiko duzuen arloetakoa, eta hor arazo handienetakoa da alokairuen etengabeko igoera. Udalak zer egin dezake igoera hori apaltzeko?

Azken lau urteetan etxebizitza sozialaren arloan eskuinak ez du deus egin. Salestarren proiektuarekin erakutsi dute haientzat etxebizitzaren eremua bakar-bakarrik negoziatzea dela. Une honetan identifikatuak ditugu auzoz auzo dauden orube eraikigarriak eta uste dugu 1.000tik gora etxebizitza egin daitezkeela.

Zeintzuk dira etxebizitza politika horren oinarri orokorrak?

Datozen zortzi urteetan, udalak, zuzenean edo zeharka, 1.200 eta 1.600 etxebizitza artean sustatuko ditu, eta honako hauek lehenetsiko ditu: bat, alokairu sozialeko etxebizitzak (600 inguru); bi, 100 etxebizitza huts alokairu-erregimenean aterako ditu foru poltsa baten bidez. Babes Ofizialeko Etxebizitza pribatuak gutxienez 410 izango dira, eta gutxienez 220 gazteen alokairurako. Gazteen emantzipaziorako bizitoki espezifikoak 82 dira, baina 100 ere izan daitezke. Halaber, bi partzela bideratuko dira adinekoentzako elkarlanerako bizitokiatarako eta tutoretzapeko apartamentuetarako, guztira 75 bat pertsonarentzat.

Baina zenbakiak bezain garrantzitsuak dira honako lau kontu hauek. Bat, lan hori Nafarroako Gobernuarekin zuzeneko lankidetzan egingo da. Bi aldeak erabat jabetzen gara paralisi-fasea gainditzeko elkarrekin eta modu bizian lan egin behar dugula. Bi, gazteen emantzipaziorako bizitokien figura sortzea, bost urtera arteko alokairu oso murriztuarekin, gure gazteek independizatzeko aukera izan dezaten. Hiru, birgaitzeko laguntzen igoera nabarmena izango da auzo guztietan; urtean sei milioi izatera iristea aurreikusten dugu. Eta lau, bizitegi-larrialdietarako egungo 200 etxebizitzako parkea handituko da.

Iruñeko etxebizitzaren errolda legealdi honetan egingo da?

Uste dut joan den urtean egin zela lehengo zenbaketa, eta horren arabera, 500 etxebizitza huts inguru daude Iruñean.

UPNren udal gobernuarekin Geltokiko proiektua kolokan egon da.



“ ”

Hiri osoan 100.000 bat zuhaitz landatu nahi ditugu datozen urteetan

Orain zer egingo da?

UPNk guztia eraitsi nahi zuen, guk zer-bait berezia egin nahi dugu. Lehengo autobus geltokia mantendu nahiko genuke, andenak, leihatilen eremua, han dauden ekonomia sozialeko negozio txikiak... Estalitako plaza ere han dago, Zabalgunea eta Alde Zaharraren artean, eta hori Iruñea moduko klima duen toki batean altxorra da. Eraikinak, halaber, badu indarra memoria kolektiboan XX. mendeko eraikin gisa, eta konpondu eta berreskuratu beharko genuke udal etxebizitzak egiteko. Gainera, han dago erloju ospetsua ere, non 36ko Gerran bi pertsona ezkutatu ziren.

Hirian espazioak birnaturalizatu nahi dituzue eta basoak sortu. Non?

Hiriaren barruan azken hamarkadetan zuhaitzak zeuden tokietan esku-hartze handia izan da. Egon den lurpeko apartakaleku politikarekin espazio horiek asko ahuldu dira, beraz, horiek zaindu eta bermatu behar ditugu. Uda gogorrak izaten

ari dira hemen eta zuhaitz baikoitza babestoki bat da. Horregatik, Gurutze plazako aparkalekua bertan behera geldituko da. Baso parkea hiriaren hegoaldean egin nahi da, Lezkairu auzo inguruan. Hiri osoan 100.000 bat zuhaitz landatu nahi ditugu datozen urteetan.

Urtearekin abiarazi den Txantreako biomasa planta esportagarria da beste auzo batzuetara?

Bai, noski, hori izango litza-teke gure nahia. Dena den, hori ez dago gure esku soilik, Nafarroako Gobernuaren eta Iruñeko Udalaren proiektu partekatua baita.

Instituzio guztietan trantsizio energetikoaren gaia besterik ez dago gaur egun. Iruñea ere horretan ari da. Gizarteko hainbat sektorek, ordea, faltan

botatzen dute aldi berean ez egitea horrek eskatzen duen eraldaketa sozialarekiko hausnarketa. Nola ikusten duzu gaia?

Entzuten dugunean bizi dugun uda baikoitza ezagutuko dugun freskoena izango dela, hori oso kezkarria da. Aldaketa klimatikoa beti etortzekoa zen eta orain ohartu gara hemen dagoela, eta harrapatu egin gaituela. Beraz, bukatu dira epeak. Espazioen birnaturalizazioa, mugikortasun jasangarria, garraio publikoa... Gauza asko dago egiteko, baina hurrengo urteetako politikari belaunaldiak dagoeneko emergentzia hori gainean dutela aritu beharko dira lanean.

Hazkunde ekonomikoa izan da orain arteko eredu nagusia, eta hiriak ere gelditu gabe hazi dira. Orain, ordea, desazkunderaz ere gero eta gehiago entzuten da.

Eta prestatuak egon behar dugu desazkunderako. Iruñeak azken zortzi urteetan 200.000 lagun langa pasatu du, eta badakigu gure mugetatik oso ger-tu gaudela. Erripagaña auzoa azkenean zein udalerritan geratzen den, horren arabera egongo da gure sabaia ere.

Globalizazioak ekarri du hirien lehia handia azken hamarkadetan. Sektore ekonomiko batzuentzat ikuskizun edo ekitaldi ugari onak izango dira

seguruenik. Herritarrentzat ere bai?

Erretorno ekonomikoaren kontzeptua hor dago, eta gai hori sarritan plazaratzen da. Hirien artean sekulako lehia dago hainbat alorretan posizionatzeko, kultur ikuskizunetan, musikan, jaialdietan... Halakoak, oro har, gizartearentzat onuragarriak dira, eta testuinguru horretan batzuek negozioa egiten dute. Sanferminek, adibidez, hiri merkataritzari ez diote ekarpen handirik egingo, baina ostalaritzari bai, eta beste gauza asko guztion onurarako dira.

Ostegun eta asteburuetan Iruñea osoko milaka pertsona datoz Alde Zaharreko tabernetara. Eredu horrek bizilagunekiko talka dakar. Posible ote da tabernen parke tematikoaren eredu horri buelta ematea?

Zaila da. Gainera, auzo batzuetako taberna giroa ahuldu egin da urteekin, eta dena Alde Zaharrean metatu da. Baina, aldi berean, Iruñeko Alde Zaharra bizirik da auzo moduan, eta agian horregatik, talka beste toki batzuetan baino handiagoa da. Beste auzoetako bizilagunek Alde Zaharra haiena ere sentitzen dute. Beraz, nola uztartu daiteke jendearen aisialdirako eskubidea eta auzotarrena? Oso zaila da. Hala ere, Iruñeko Alde Zaharra oso handia da eta arazoak leku zehatz batzuetan dira. Teknikoki hobetu ahal izango dira etxeetako isolamenduak-eta, baina funtsean heziketa arazo baten aurrean gaude, eta ulertu behar dugu gure aisialdia ezin dela bilakatu arazoa beste batzuentzat. Udaletik lan egin beharko dugu sektoreen arteko adostasunak erakitze aldera.

Badirudi berez datorren arazoa dela, baina urte luzez taberna mordoa zabaltzearen ondorio da, besteak beste.



“ ”

Nafarroan ulertu behar dugu indar ezkertiarrek elkarrekin lan egitera kondenatuta gaudela, bestela beti irabaziko du eskuinak

Hala da, bai, eta horregatik 2015ean guk moratoria bat ezarri genuen hori mozteko. Kritika handiak jaso genituen, baina moratoriak hor jarraitzen du oraindik, beraz, ondo hartutako neurria izan zela uste dut. Garai batean zera gertatu zen: Alde Zaharreko merkataritzaren gain-behera ematen ari zen unean, batzuek pentsatu zuten ideia ona zela ixten ziren pertsianak tabernekin ordezkatzea. Denborarekin ikusi da hori ez zela lokal hutsei irtenbidea emateko era eta, gainera, arazo handi bat ekarri duela.

Turismoa ere bada arazoa, besteak beste etxebizitzaren prezioaren igoera handia dakarrelako. Iruñean freno jarri behar al zaio turismoari?

Iruñean arazoa ez da horren gordina, adibidez Donostiarekin konparatuta, baina neurriak hartzeko momentuan gaude, eta orain neurriak jarri ezean, hemendik hamar-hamabost urtera arazo bat izango genuke. Gure alde dugu Iruñeko Alde Zaharreko auzo bizitza oraindik oso bizi dagoela eta baduela indarra.

Beste esparru konplexu bat: euskarazko haur eskolak. Zuen aurreko legealdiko lana atzera bota zuen UPNk eta orain euskara hutsezko eskalategi bakarra dago: Txantrea auzoko Izartegi. Donibane auzoan datorren ikasturterako euskarazko lerroa irekitzeko eskaera dago, eta Mendillorri eta Arrosadian ere badira eskaerak. Posible ikusten duzu?

Gu urte berriarekin hasi gara lanean udal gobernuan eta matrikulazio kanpaina hastear dago. Ez dugu denborarik datorren ikasturtean aldaketak egiteko. Gure zeregina ez da datorren ikasturte izango, baizik eta datozen hogeituro urteetako panorama diseinatzea. Eta horretarako lehenik jabetu behar dugu dauden beharrez, eskaintza eta eskaria egokitzeko.

Dudarik gabe, gure helburua ez da ba-

bertako -rekin BAI!
igogailuak | ascensores

OROTARIKO ZERBITZUA
100€-tik/hileko

- Baietz mantentze-lan profesionalari
- Baietz benetako 24/7/365 zerbitzuari
- Baietz aurrezteari mantentze fakturan
- Baietz bertako hornitzaileei

GIPUZKOA
943 903 450

BIZKAIA
946 523 935

ARABA
945 712 822

NAFARROA
848 870 917

www.bertako.eus

karrik eskaria asetzea, baizik eta euskararen erabilera bultzatzea. Legeak argi esaten du hori eta horretatik urruti gaude oraindik. Edozein kasutan, legealdi hone-tako gure helburua honakoa da: Iruñeko edozein auzotan euskaraz ikasi nahi duen haurrak horretarako aukera izatea. Hori lorpen izugarria litzateke.

Zergatik da horren garrantzitsua Iruñeko herritarrarentzat Iruñeko Udalak gaur egun hamar milioi euro gastatzea Sarasate pasealekua berritzen?

Gazteluko plaza eta Sarasate pasealekua Iruñeko bi eremu sinboliko dira, eta herritarrentzat maitatuenak seguruenik. Gazteluko plazan esku-hartze erasokorra egin zen duela hainbat urte, baina gaur egun XXI. mendeko plaza baten irudia du. Sarasatek ez. Sarasate berez bulebar bat da, baina une honetan Alde Zaharra eta Zabalgunea bereizten duen lubakia da, eta alde-rantziz izan beharko litzateke, leku zabal bat eta topagune bat, hiriari bizitza emateko espazio bat. Gaur egun ez da hori. Sarasate pasealekua birmoldatzen denean, aurkikuntza bat izango da hiriarentzat, eta herritarren aisialdirako gune inportantea. Gainera, lagunduko du Gazteluko plaza arintzen, orain mundu guztiak han egin nahi dituelako ekitaldi guztiak.

Batez ere aipatzen dut hori gaur egun bitartekoak oso mugatuak direlako eta beharrak handiak. Adibidez, ez ote litzateke hobeto baliatzea milioi horiek Sanduzelai auzoko errotondako trafikoa lur azpira eramateko?

Ziur zaude lur azpiko pasabide hori dela irtenbidea hor? Horrela ez genuke saihestuko ez zarata, ez trafikoa, ezta kutsadura ere...

Beno, hori diot, hango bizilagunek hori eskatzen dutelako, eta haiek ondo aztertuta izango dute gaia.

... errotonda horren arazoa oso konplexua da eta irtenbidea, seguruenik, ez da norabide bakar batetik etorriko. Ahal den neurrian, errotonda gainean plaza bat egin beharko da, eta trafikoa zati bat azpitik pasatu beharko bada ere, beste zati bat desbideratu egin beharko da. Hori, aldiz, ez da erraza, irtenbide naturalena gaur egun igerilekuak dauden lekutik izango litzatekeelako, baina leku hura ezin da ukitu... Horregatik, ideien lehiaketa bat bultzatuko dugu eta, seguruenik, soluzioa ere hainbat adarretakoa izango da.



Erorien monumentua

Hurrengo pausoak izango dira sei proiektuetatik onena jasotzea eta ondoren, parte hartze prozesu baten bitartez, herritarrek erabakitzea

Erorien Monumentua ere ideien eztabaidan utzi zenuten aurreko legealdian. Iruñeko sektore askotan eraisteko eskaera historikoa da, baina hori ez zen egin eta orain hor dago. Eraistea baztertuta, nondik nora joan daiteke bere erabilera?

Eraisketa ez dago baztertuta. Bere garaian asko izerditu genuen gaiarekin, izen aldaketarekin eta desobiratzeekin. Azkenean, nazioarteko lehiaketa oso aberasgarria egin genuen eta sei proiektu finalista gelditu ziren. Hor daude hainbat proposamen, eraikina eraistetik eraikinari beste esanahi bat emateraino, eta aukera guztiak zabalik daude. Hurrengo pausoak izango dira proiektu horietatik onena jasotzea, eta ondoren, parte hartze prozesu baten bitartez, herritarrek erabakitzea.


EH Bildu eta PSN ibilbide bat egiten ari dira, bereziki 2019tik aurrera. Ibilbide behartua da –Iruñeko Udalean oposizioan elkarrekin, Foru Gobernuaren sostengatzen duzue...– edo elkarrekin estrategikoki hausnartua ere bada? Euskal Herrian dagoeneko ez dugu bizi

1980-90eko hamarkadetako egoera. Horrek asko lagundu du. Orain artekoa ez zen naturala. Iruñeko soziologiak erakusten du 27 zinegotzitik 16 aurre-rakoiak direla, eta beraz, normalena adostasunera iristea litzateke. Eskuinak ondo baliatu du gatazka egoera hori eta gutxiengoan izanda ere, boterearen %100 izatera iritsi izan da.

Horrez gain, abagunearen beste osagai batzuek ere laguntzen dute egoera hori. Esaterako, estatuan gaur egun PSOEk duen orientazioak laguntzen du, PSNk duena ere ez da duela bi hamarkadetakoa, eta Iruñeko Udalean ere berdin. 2019ko “Agur Asiron agur” haiek izan ziren harreman horren unerik baxue-na, baina asteburu batean egin genuen gure dolua, eta astelehenetik aurrera lanean jarri ginen, jakinik PSNrekin lan egin behar genuela. Eta gero, oposizioan egon garen ondorengo lau urteak kla-beak izan dira, sinergiak bateratu ditugulako eta diagnostiko partekatu batera iritsi garelako: Iruñeak ezin zuela horrela jarraitu. Baina Iruñean gertatzen ari dena, batez ere Iruñeko logika batetik etorri da.

Pentsa liteke Iruñeko legealdi hau ondo ateratzen bada, horrek asko aldatuko duela etorkizuneko Nafarroako udal panorama.

Bai, uste dut hemen gertatu den eredia guztiz esportagarria dela, bai udal mailan, bai beste instituzio batzuetan. Baina guk PSNrekin udalean diagnosi partekatua landu dugun bezala, beste toki batzuetan ere hala egin beharko dute, hori ez datorrelako berez. Nafarroan ulertu behar dugu indar ezkertiarrek elkarrekin lan egitera kondentatuta gaudela, bestela beti irabaziko du eskuinak. ●



Chinatown: zokoratuak eta zukutuak



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Txina, 1417 urte inguruan. Zheng He almiranteak, Ming dinastiako enperadoreen soldatapeko esploratzaileak esan zuen posible zela “mundu osoa ibiltzea Txinatik irten gabe”. Ordurako Indiako Ozeanoan, Itsaso Gorrian eta Asiako hego-ekialdean zabaltzen hasia zen kolonia txinatarren sarea, eta hortaz ari zen esploratzaile txinatarra. Qing dinastiaren garaian, 1644tik aurrera, migrazioak behera egin zuen nabarmen. Baina XIX. mendean txinatar oldeak, nagusiki han etniakoak, bost kontinenteetara migratu zuten, etxean baino baldintza hobeen bila. Orduan sortu ziren Chinatown modernoak.

Dokumentuek jasotzen duten auzo txinatar zaharrena Manilakoa da, hainbat iturriren arabera 1594an sortua. Filipinasko koloniaren administratzaile espainiarrek egungo Binondo auzunean kontzentratu arazi zituzten Txinatik zioazen herritarrak. Ordurako filipinarak eta kolono europarrak bereizita bizi ziren hirian, eta lehenengo Chinatown hura baztertuen artean baztertuenak bereizteko erabili zuten, handik aurrera sortuko zirenak bezalaxe.

Western Sidney unibertsitatego Ien Ang ikerlariaren arabera, auzo horiek ghetto hutsak ziren, prekaritate izugarriko guneak eta “bertakoentzat guztiz arrotzak ziren haiek kontzentratzeko eta baztertzeko” erabiltzen ziren. Mesprexuz eta susmo txarrez begiratzen zieten txinatarrei eta auzo haiek “baz-



San Franciscoko (AEB) Chinatown 1900. urte inguruan.

terkeria sozial eta urbanistikoaren adibide ezin garbiagoak ziren”.

Baina “auzo txinatarren rolak eta esanahiak aldaketa sakona izan dute azken mendean”, Angen ustez. “Gaikako kontsumo gune bihurtu dira, ikuskizun turistikoak”. Aldaketa horren adibide garbiena Londresko Chinatown da. Hiriko lehen txinatar auzunea Tamesis ibaiaren ertzeko ontziolen inguruan sortu zen, prekaritate eta bazterkeria handiko eremuan. Bigarren Mundu Gerraren ondoren, nagusiki Hong Kongetik etorritako migratzaile oldeak Soh-

kontzentratzen hasi ziren, eta 1970eko hamarkadatik aurrera, turismoa erakartzeko gaikako parkea loratzen hasi zen.

Duela aste batzuk, Madrilgo alkate Jose Luis Martinez Almeidak Usera auzoan Chinatown erraldoia eraikitzeke ekimenaren berri eman zuen. Eta proiektuak primeran erantzuten dio molde berriko auzo txinatarren ereduari: kontsumo hutsa du helburu eta estereotipo okerrak azpimarratzen ditu, apropiazio kulturala egin eta auzo txinatarren benetako iragan gordina ukatuta. ●



Mizerinok eztabaida piztu du

Mostafa Waziri Egiptoko Antzinaroko Kontseilu Goreneko idazkari nagusiak Miserinoren piramidea zaharberritzeko proiektu erraldoia aurkeztu du berriki: Gizako piramiderik txikiena granitozko blokez estaliko dute, jatorrizko itxura berreskuratuz dezan. Wazirik proiektua gogo biziz defendatu arren, polemika

berehala piztu da sare sozialetan nahiz adituen artean.

Monica Hanna egiptologoaren ustez –Waziri bezala, egiptoarra bera ere–, “ondarearen zaharberritzeari buruzko nazioarteko akordio guztiak halako interbentzioen aurka daude. Hori bakarrik behar genuen, piramidea alikatatzea!”. ●

EUSKAL OSPITALETAN ELIKADURA SISTEMA IRAUNKORRAK GARATZEKO TXINPARTAREN BILA



AINTZIRA OÑEDERRA,
MIRENE BEGIRISTAIN
ETA GOIURI ALBERDI

Elikagaien Erosketa Jasangarrirako Estrategia Osakidetzako Ospitaleetan

Kontratazio publikoa tresna balioetsua da erakunde publikoen berrikuntza-politikarako. Elikagai jasangarrien erosketa publikoak egungo ekoizpen- eta kontsumo-ereduak aldatzeko gaitasuna du. Ospitaleak ere funtsezkoak dira horretan. Renaissance ikerketak osasun-zerbitzuetan elikadura-sistema iraunkorrek garatzeko beharrezkoak diren erronkei buruzko gogoeta egin du.

Elikagaien erosketa publikoa oinarritzko tresna politikoa da. Kontsumoa eta ekoizpena agroekologiarantz bultzatzeko ahalmena du, onura sozialak, ekonomikoak, ingurumenekoak eta osasunekoak sortuz. Europar Batasunean ondasun eta zerbitzuen balio monetario guztiaren %14 kontratazio publikora bideratzen da. Potentzial ekonomiko horrek, elikagai iraunkorren erosketa publiko bitartez, egungo ekoizpen- eta kontsumo-ereduen eraldaketan eragin zuzena izango luke.

Ospitaleek, "aingura-erakunde" gisa, estrategikoki erabili behar dute beren posizioa ospitaleaz harago eragiteko,

herritarren osasuna sustatzeko eta komunitateari eta tokiko ekonomiari laguntzeko. Hala, elikagai iraunkorren erosketa publikoa beraien funtzionamenduaren oinarri izan beharko litzateke. Nafarroan pausuak eman dira, izan ere, Ekoalde ekoizleen elkarteak horniketa zerbitzuak eskaintzen dizkio Nafarroako Ospitale Unibertsitarioari, hurbileko eta sasoiko produktu ekologiko batzuk pazienteen menuetan sartuz. Osakidetzan, ordea, urrats txikiak eta sinbolikoak eman dira.

Eusko Jaurlaritzak *Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programa* aurkeztu zuen, 2030era begira erosketa berdea sustatzeko estrategia, alegia. Elikadura lehentasunezko kategoria gisa identifikatzen da; hortaz, espero dezagun hurrengo urteetan aurrerapauso nabariak emango direla.

Euskal Herriko Unibertsitateak garatutako Renaissance ikerketak elkarrizketan jarri zituen Osakidetzako langileak eta elikadura-sistemako hainbat eragile, gai horri buruz hausnartzeko. Berriki dibulgazio-txosten bat aurkeztu da lan-saio

horien edukiarekin; artikulua zientifiko bat ere argitaratu da. Euskal osasun-sisteman elikadura-sistema iraunkorra sustatzeko hazi horrek hamahiru erronka eta 30 ekintza xehetu ditu.


Ikuspegi agroekologikoarekin elikadura sisteman eskala-jauzia egiteko, hiru dira, gure aburuz, nabarmentzeko erronka nagusiak, sektoretik zein erakunde publikoetatik heldu beharko liratekeenak: hornidura partekatua zerbitzua –ekoizle txikiek produktuen eskaerari eta banaketari aurre egiteko–; lizitazio publikoetako balorazio-irizpideak tokiko ekoizpenari eta eredu agroekologikoari egokitzea –egun enpresa handiei eta elikadura industriari egokituta daude–; eta, noski, erreleboaren gaia –lehen sektore agroekologikorik gabe ez dagoelako jasangarritasun posiblerik–. Beste behin ere, inbertsio publikoen norabidea berrikusteko beharra islatzen da.

Artikulu honek balio dezala "hazi" deritzogun ikerketa hau ezagutarazteko eta gure ospitaleetan elikadura-sistema iraunkorretarako trantsizioaren txinparta sortzeko. ●

A ZE FAUNA!



MUTOLISP / CC-BY-NC-SA 2.0



IPURTARGI GAZIAK



NAGORE ZALDUA MENDIZABAL
ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEKO KIDEA

Zein gauza liluragarria argia sortzeko ahalmena izatea, ezta? Ipurtargiak, kakalardoen familiakideak, lehorreko izaki dirdiratsu ospetsuenak dira; baina itsasoan ere badira, ozeanoetan, distira egiten duten hainbat izaki biolumineszente. Itsas animalien %76 biolumineszenteak dira, tamaina guztietakoak, krustazeo txikienetatik marrazo handietara, eta tartean baita txipiroi erraldoiak ere. Beraz, itsasoa “ipurtargiz” betea dagoela esan dezakegu, nahiz eta ez diren errazak ikusten, gehienak ur sakonetako espezieak baitira.

Baina nola sortzen du izaki bizidun batek argia? Naturak hainbat modu aurkezten dizkigu. Fotoforoa, substantzia kimiko jakin batzuen bidez (adibidez, luziferina) argia igortzen duen organoa da, itsas animalia batzuetan argi-puntuz osatua agertzen dena; arrainetan eta zefalopodoetan ikusten errazak izaten dira. Organo hau sinplea edo giza begia bezain konplexua izan daiteke, lenteak, kolore-iragazkiak eta islatzaileak baititu. Bestalde, badira beste hainbat animalia, argia, harrapakinaren liseriketaren xurgatzen dituzten substantzietatik abiatuta sor dezaketenak, espezializatutako zelulen bidez (fotozoitoak), nahiz organismoak dituen bakterio sinbiotikoen laguntzaz.

Biolumineszentzia duten animalia entzutetsuenen artean, arrain abisopelagi-

koak daude, hau da, ozeanoetan, eguzki argirik iristen ez den 4.000-6.000 metro arteko sakoneratan bizi direnak. Bestalde, arrain lofformeeak, haragi distiratsuko beita bat dute, harrapakinak erakarri eta haiek irensteko, arrantza-teknika aurreratu bailitza. Oroitzen *Nemo*-ren filmeko linterna-arrainaz? Bada, arrandegietan erosten dugun xapoa (*Lophius budegassa*) ere, familia berekoa da. Asturias parean inoiz topatu izan diren txipiroi erraldoiak (*Architeuthis sp.*) ere biolumineszenteak dira; horiek ere harrapakinak ehizatzeke erabiltzen dute argia. Egunez, sakonera handiko uretan egoten dira eta gauez sakonera txikiagoetara mugitzen dira, ehizatzaera. Harrapakinak gerturatu ahala, argi distira bortitz batekin itsutzen dituzte, argazki kamera baten *flash* argia bailitza.

Ur sakonetako marrazo batzuek (adibidez, *Dalatis licha*), hainbat hormonari esker (tartean melatonina edota prolaktina), argi ekoizpena kontrolatzen dute. Munduko marrazorik txikienak direnek (15 cm-koak) berriz, linterna-marrazoek (*Etmopterus perryi*), beren sexu organoetan duten fotoforoen argia espezie bereko kideei erakusten diete, harro, autopromozioa egiteko; horrela, ur ilun eta sakonetan bikotea topatzeko aukerak handitzen dituzte.

Ezin azken adibide hau aurkeztu gabe utzi: gure itsas “ipurtargi gazia”. Bizkai-

MALKO URDINA

Noctiluca scintillans

TALDEA: Itsas dinoflagelata / Protista: animalia, landare edo onddo ez diren organismoak.

NEURRIA: 200-2.000 mikrometro artean.

NON BIZI DA? Itsaso zabalean, modu pelagikoan, ur bero, hotz eta epeletan.

ZER JATEN DU? Planktona: diatomeoak, dinoflagelatuak, baita bakterioak, kopepodoak eta arrain-arrautzak ere.

MAREA GORRIEN SORTZAILE DA: Espezie honen elikagai-iturri nagusi den planktonaren kontzentrazio altuek, eta urtaroko aldeko baldintzek, malko urdina masiboki ugaltzea eragiten dute eta, ondorioz, “marea gorria” izenez ezagutzen den fenomeno sortzen da.

ko Golkoan badugu ipurtargien antzeko erreakzio kimikoa baliatuz argitzen den dinoflagelatu bat, malko urdina edo argi txinparta bezala ere ezaguna (*Noctiluca scintillans*). Itsas planktonaren parte den organismo zelulabakar honek luziferina molekulararen oxidazio prozesuaz sortzen du argia. Organismo ñimiño horiek itsas azaleko bibrazioekin kitzikatzen direnean –dela olatuengatik, dela beste organismo batzuen presentziagatik–, argia sortzen dute. Gure kostaldean itsasontzi batean gauez nabigatzeko aukerarik izanez gero, hauxe, hitz gutxitan, izan dezakezu bizi-pena: txalupa baten muturrean, izurdeak brankako gilan saltoka, ilargi-igitai baten argitan eta ugaltzen bizkarretan barna, planktonaren biolumineszentzia. Txinpartaz, zipriztinez eta “ipurtargi gazi”-z busitako ikuskizun paregabea. Itsasontzirik ezean, beste aukera, hondartzara iristen diren olatuek dakarten argia kontenplaztea. Baina, hori bai, hondartza basati samar batean beharko du, argi-kutsadurarik gabe, bestela, gure baitan pizten diren bazter miresgarri horiek ez baitira hain erraz ikusten. ●

ZURAK 18.000 MILIOI ARKATZETARAKO



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Umetatik izan ditut arkatzak gustuko. Marrazteko, eta marrazketa teknikoan aritzeko zer esanik ez, arkatza eta marra luma besterik ez genuen. Marra luma tintaz kargatu behar zen egin beharreko marra ba-koitzeko... Muturreko lumaren torloju lasaituta marra lodia, estututa mehea. Koskortu ginenerako rotrina azaldu zen eta marra guztiak lodiera berekoak. Arkatzena, ordea, mundu bat zen.

Etxekoa genuen oso aitzak zerrategian erabiltzen zuen arotz arkatza; forma berezikoa, ez dakit nola esan: hiztegiak diote obal, obalatu eta arrauzkara. Eskolako arkatzak hexagonoak edo borobilak ziren. Hexagonoak arruntak, eta borobilak kopiatiboak edo ezabaezinak. Azken horiek bustian ere margotzen dute eta idatzitakoa ez galtzeko eginak daude.

Niretzako arkatza zura zen bitxia. Umetan arkatza atzeko muturrari hozkaka aritzea ez zen harritzekoa, eta txorroxkiloan zorrozterakoan askatzen zuen lurrina mendetasun sortzailea. Zedro usainaren familiakoa zen, eta bizitza guztian mintz pituitarioan eraman dut; orain zedro zurez inguratuta bizi naiz.

Laster hasi zen adikzio hori lanean: arkatzen bilduma egiten hasi nintzen.

Hasieran inguruan nituen guztiak biltzen nituen eta gero bilatu eta bilatu jarraitu nuen. Orduan eta mendekoago. Mordo bat bildu nuen, kutxa batzuk eta anega erdiko erregu bat ere beteta ditut... Urrun dut, baina, Aaron Bartholmey, bere Guinness errekorreko 69.255 arkatzekin.

Arkatzek geologia ere aberatsa eta ederra dute. Arima grafitozkoa dute baina kaolinarekin nahasia. Nahasketa hori 800 gradutik gora berotzen da, zarkarkeria esateko bada ere, leun idatzi dezan. Nahasketaren arabera lapitzek gogortasun eskala bat dute: gogorrena 9H da eta bigunena 9B, erdian F eta HB, denetara 20 maila. Buruan ezabagoma badu, hari eusteko xafla bauxitatik sortutako aluminiozkoa da, eta ezabagoma apar harria eta sufrea nahastuta.

Niri, hala ere, zura zait interesatzen. Guk ezagutzen ditugun zedroak, benetako zedroak, Atlasekoa (*Cedrus atlantica*), Libanokoa (*Cedrus libani*) eta Himalaiakoa (*Cedrus deodora*), ez dira arkatzetarako erabiltzen. Horien antzeko usaineko zura duten beste konifero batzuk dira erabilienak. Hiru ezaugarri nagusi eskatzen zaizkio arkatzetarako zurari: biguna izatea, erresistentzia eta

erraz eta garbi zorroztea. Tuia erraldoia (*Thuja plicata*), pinu brasildarra (*Araucaria angustifolia*), Karibeko pinua (*Pinus caribaea "Hondurensis"*) eta batez ere intsentsuaren zedroa (*Calocedrus decurrens*) erabiltzen dira; horiez gain: eskolako zuhaitza (*Alstonia scholaris*), gamharra (*Gmelina arborea*), makal hibridoia (*Populus trichocarpa x P. deltoides*), Siberiako ezkia (*Tilia amurensis*) eta Mantxuriako ezkia (*Tilia mandshurica*). Konifero jendearen kuadrillatik kanpoko azken horiek merke-zurreko arkatzak egiteko erabiltzen dira, zur merkekoak, alegia. Izan ere, nahiko zura eskuratzen ez da erraza izango, urtean egiten diren hemezortzi mila milioi arkatzak egiteko...

Horien artean daude Sprout enpresak egiten dituenak. Atzeko muturrean kapsulatxo bat daramate, non landare haziak dauden. Zorroztearen zorrozteaz arkatza behatz artean ez eusteko moduko ttikia denean, buruz behera lurrean sartu eta landareak sortuko dira: albahaka, perrexila, martorria, ezkaia, mitxoleta, krabelina eta abar. Tartean eta onena izeia, arkatz bateko hondarrarekin izeia sortuko da eta ize horrek gero 180.000 arkatz egiteko zura emango du. ●



SORONEA

“BARAZKIAK PREZIO DUINEAN SALTZEKO BIDEA DENDAN TOPATU ZUEN OSABAK”



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN



Miriam eta Igone Saldias ahizpek baserriari eta familiako proiektuari eusteko apustua egin dute. Berrobiko Soronea baserrian barazkiak ekoizten dituzte eredu ekologikoan, eta Tolosako Soronea dendan saltzen, modu zuzenean. “Aiton-amonak esne behiak zituzten, baina duela 30 urte inguru, osabak baserriko erreleboa hartu zuen eta baratzean hasi zen, ekologikoan”, azaldu du Miriamek. Barazkiak prezio duinean saltzeko asmoz eta eredu ekologikoan zuen konbentzimenduagatik, denda irekitzeko apostua egin zuen Iñaki Uranga osabak Izaskun eta Maribi arreberekin batera. Gaur egun, bi ilobak batu dira familiako proiektura. Baserriko barazkiez gain, hurbileko produktu ekologikoen eskaintza zabala dute dendan.

BARATZEKO ETA DENDAKO LANAK UZTARTZEN

Hasieran, barazkiak inguruko azoketan

saltzen zituzten Soroneako kideek, baina dendako atea ireki zituztenetik, han egiten dute salmentaren zatirik handiena. “Bezperan prestatutako barazkiak izaten ditugu dendan, freskoagoak ezin!”, dio Saldiasek. “Aurten, gainera, oilotegia ere martxan jarri dugu, gure arrautzak saltzen ari gara dagoeneko”, gehitu du. Beste zenbait saltoki eta jatetxeri ere saltzen dizkiete Soronea baserriko produktuak. Laster, gainera, webgune bidezko salmenta ere jarriko dute martxan.

Duela hiru urte sartu ziren Saldias ahizpak familiako proiektuan: “Naturarekin genuen erlazioa erabat aldatu zaigu baratzean hasi ginenetik. Oso polita izan da gazteok nahiko galdua dugun harreman hori berreskuratzea”. Biodibertsitatea eta ingurua zainduz bide egokia topatu dutelakoan daude biak. Hasieran, baratzean nahiz dendan, bi tokietan aritzen ziren, baina, orain, lanak banatuxeagoak dituzte: Miriam bara-

tzean aritzen da batez ere, beste langile batekin batera; eta Igone, berriz, ama-rekin, izebarekin eta laugarren langile batekin dendan.

DENDA HURBILEKO PRODUKTU EKOLOGIKOZ HORNITUA

Soronea dendan saltzen dituzten produktu guztiak ekoizpen ekologikokoak dira, eta denetik dute: kosmetika, ogia, zerealak, ontziratu gabeko produktuak, garbikariak... “Super txiki bat da hau”, dio Igonek. Produktu guztiak, gainera, identifikazioa errazteko koloretako etiketa dute: 0Km, 200Km edo 1.000Km. “Jendeak jatorria erraz identifikatzeko moduan jarri nahi genituen gauzak”.

Urteotako ibilbideari begiratuta, gauzak pixkanaka hobera doazela uste du Saldiasek: “Egun gehiago baloratzen da produktu ekologikoa, bertakoa... garrantzi gehiago ematen zaio nork eta nola ekoiztu duen jakiteari”. ●



“Bio elikagaiak jatea funtsezkoa da osasuna mantentzeko eta berreskuratzeko

—
ELENA CORRALES
Biologoa eta nutrizioan aditua
OLATZ TXIPIA

ETORKIZUNA EKOLOGIKOA DA aurrera goaz!





cpaen.org
navarraecologica.org




ZUZENDARITZA



MIKEL OLABIDE / ARGIA CC BY-SA

Zuzendaririk gabeko zuzendaritza kontuak

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Ez da estatu kolperik izan ARGIAN. Hauteskundeak egin dira eta demokratikoki hautatu dituzte zuzendaritzako kide izango diren hurrengo bi kideak. “Marroia jango duten bi lagunak”, pentsatuko dute klaustroan sekula ardurarik hartu nahi ez duten irakasleek –ezagutzen ditut klase honetako batzuk–. Ilusioz hartzen duenik ere bada, ordea. Proiektuan sinesten duen jendea. Lanerako gogoia duena eta, noski, jakinda ardura bat dela. Onintza Irureta eta Jone Arzallus dira erreleboa hartu berri dutenak, eta Axier Lopezi, Olatz Kortari eta Aloña Soralezuri batu zaizkie.

Artikulu leitzen ari den gehienak, pentsatzen dut, badakiela ARGIAN zuzendari figura kendu zela duela lau urte. Inor despistatuta harrapatu badut, irakur dezake 2019ko urtarrilaren 21ean Argiaren Barrenak blogean idatzitakoa. Zuzendariaren lanak talde osoak hartzen ditu bere gain gaur egun, eta ordezkari-tza kolektiboa osatzen dute. Bost kidek

osatzen dute zuzendaritza taldea –beharrezko egoera batean taldea handitzeko aukera onartzen da estatutuetan–. Eta kargua bost urtetarako hartzen da, ez gehiago eta ez gutxiago. Boterearen erotikak burua gehiegi galduarazi aurretik pasa behar izaten da aginte-makila beste esku batzuetara, langileek –enpresako bazkideak direnek– hauteskunde bidez aukeratutako eskuetara. Urko Apaolaza eta Mikel Garcia izan dira zikloa osatu eta taldetik atera direnak. Esan gabe doa, bosteko talde guztia ez dela urte berean aldatzen. Pixkanakakoa izaten da, kaosik ez sortzeko eta makinak bere mar txan jarrai dezan. Hiru urtez talde bera mantentzen da eta gero bi ateratzen dira, hurrengo urtean beste bi eta azkena hurrengoan.

HIRU SAILEN ORDEZKARITZA

Idazkaritza, salmenta eta erredakzioa dira ARGIAri eusten dioten hiru oinarriak. Sail guztiek eduki behar dute or-

Ongi etorri Komunitatera!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!

“”

“Artikuluen kalitateagatik eta euskararekiko atxikimenduagatik”.

Lazkaotik Aitorrek

“Batetik, interneten irakurtzen dugulako, eta bestetik, eta batez ere, euskal kazetaritza babestu nahi dugulako eta irakurtzen ditugun artikuluak oso interesgarriak egiten zaizkigulako”.

Villabonatik Nereak

dezkaritza zuzendaritza taldean eta, kopuruz gehiago direnez, erredakzioa kazetariak hartzen dute pisurik handiena (3-1-1 formula erabiltzen dute gehienetan). Beraz, ordezkari berriak aukeratzeko orduan, kontuan hartu behar da zein ateratzen diren, hauteskundeetako bozka sailek ere baldintzatuko baitute.

Behin bost urteak eginda, ezin izango du bazkide horrek –ARGIAko bazkide izan beharra baitago zuzendaritzako kide izateko– berriz ere zuzendaritza taldean egon bere saileko kide guztiak ardura horretatik pasa arte. Horizontaltasunaren joko-arauak. Partida bertikalean jokatzera ohitutakoentzat hyppiegia eta hyppientzat bertikalegia, akaso?

Pastela modu justuagoan banatzea da asmoa. Denok jan behar dugu zerbait, gutxi batzuk dena jan ez dezaten. ●

“ ”

**“Unibertso bat eskaini behar du abestiak,
Beatles-ek egiten zuen moduan”**

Felix Rüdiger Buff
Musikaria



Willis Drummond "betirako amaiera" izan zitekeenaren kontzientzia Intxaurrendoko kontzertuaren egunean hartu zuen, burua Rüdiger proiektu pertsonalaren *The Dancing King* diskoaren plazaratzean murgildurik zuelako. Elkarrizketaren biharamunean Petit Fantôme taldearekin zihoan Frantziara, kontzertua eskaintzera. Eta horrela, beti eta beti, musikari talde batetik bestera, lagun talde batetik bestera. Musika ezinbesteko osagai baldin bazaio ere, musikari esker osaturiko "familia" handi hori duelako gehienik behar bizian. Elkarrizketan behin eta berriz azaleraturiko hitza dugu familiarena, eta funtsean, abesti bat eskaini die familiak sortzen dizkion gogoetei: *Where I Belong*.

 JENOFA BERHOKOIRIGAIN  DAN I BLANCO/ ARGIA CC BY-SA

Willis Drummond, Duncan Dhu, Petit Fantôme, Botibol, Rafel Berrio, Joseba Irazoki, Joseba B. Lenoir, Atom Rhumba, Dual-split, Testura... zerrenda luzeegia da guztiak izendatzeko. 30 proiektuz goratan parte hartu izan duzu. Zer zara? Lanaz errabiatua den *workaholica* ala pasionatua?

(Barrea) bietarik pixka bat, baina batez ere pasionatua. Musikaria baino gehiago, musika fan handia naiz. Sei urterekin hasi nituen batera kurtsoak, lehen taldea Monarch izan nuen, laster etorriko ziren Willis Drummond, Joseba Irazoki... batetik bestera Euskal Herriko musika eszenako jende asko ezagutu dut eta bata eta bestearekin kolaboratu dut. Anaiaren [Johannes Buff] Shorebreaker estudioan ere musikarien zerbitzuak eskaintzen gabiltza. Musikari berriak ezagutzeko tirak ere eramaten nau beti proiektu bat buruan ukatera. Gainera, Berara heldu nintzen duela hamar bat urte eta erran beharra dago musikari andana dituen herria dela, musika mintegi aberatsa daukadala hor.

Bukaera bat izan daitekeenaz -Willis Drummond- edo hasiera batez -Rüdiger-, zerekin hasiko dugu elkarrizketa?

Hasi gaitzke Willisekin.

500 txupitoak altxa eta zeri egin genion topa Intxaurrendoko azken kontzertuan?

“ ”

“Musikari berriak ezagutzeko tirak eramaten nau etengabeen proiektu bat buruan ukatera”

Ia hogei urte iraun duen ziklo luze bati. Oso une ederra izan zen. Pertsonalki, Rüdiger-en diskoa plazaratzearen zurrunbiloan nintzen eta egunean bertan konturatu nintzen agian azken kontzertua bizitzera gindoazela. Bilbo, Gasteiz, Mutriku, Baiona... Aurpegi ezagun asko zeuden eta oholtzatik bakoitza begiratu eta elkarrekin pasatako hamaika une gogora etorri zitzaizkidan! Nahiko eroa zen sentimendua eta noski, musikan zentratu behar nintzen eta ez zitzaidan baitezpada erraza izan. Biharamuneko *story*-ak eta bideoak ikustearekin ohar-tu nintzen jendea kantuz ari zela; ohol-tzaren atzealdetik ez nintzen konturatu eta hunkitu ninduen horrek. Oraindik freskoegia da, badirudi ez naizela erabat ohartzen, baina badakit hemendik gutira nostalgia sentituko dudala momentu horretaz oroitzeraoan.

Hogei urteko ibilbidea, errazki erratan da. Zer erran nahi du horrek zuzetzat?

Familia da niretzat Willis Drummond. Elkarrekin bizi izan gara *Larrondoa*-n, elkarrekin osatu genuen taldea... Egia da beste jende batzuk ere izan direla taldearen parte, baina taldearen nukleo gogorra izan da Xan eta Jurgirekilako topaketa. Anaiak bezala ditut eta ez dago dudarik: bizi osorako elkarrekin gara. Elkar ikusten segituko dugu, elkarrekin musikan segituko dugu. Familia istorio bat da Willis Drummond, laguntasun zaharra da, lotura sendoa. Baina niretzat, Euskal Herriarekiko lotura ere irudikatzen du. Herri honen geografia ezagutu dut, herri honen osaketa soziala, gauzak aldatzeko edota sortzeko mitatzen dabilzanak... Kausa batentzat ala beste batentzat, maiz deitu izan gaituzte eta plazer handiz jo dugu aldi oro; egia da ezagutuko ez nuen errealitate sozial bat ezagutu izan dudala horri esker.

Goazen Rüdiger begiratzera. Zure bigarren izena jarri diozu taldeari. Alemanian dituzun sustraietara jo nahia izan da edo ezagutzen ez genuen Felixen alde horren berri eman nahia edo...

Nire aita alemaniarra da eta ama euskalduna, mauletarra. Felix Rüdiger jarri zidaten izen gisa. Egia erran taldearen izena jartzerakoan ez nuen gehiegi pentsatu eta ez dizut gogoeta sakonik par-tekatuko. Soinuz gustatzen zitzaidan, eta nirearen parte den zerbait izatea ere gustuko nuen.

Oholtza atzealdetik lehen lerrora pasa zara, bateriatik kantura. Ez da aldaketa ttipia.

Ez da hain erraza ez. Gainera, gitarra eskuan nabil eta hori ere berria da niretzat. Pandemia garaian atera nuen lehen diskoa. Bapatean guztiak etxean geratu beharra ginen, eta nire aldetik, hamabost urteko bira eta gero tokatu zitzaidan. Ongietorria izan zitzaidan, *burn-out*-aren mugan nintzelako. *Workaholica* ote naizen galdatzen zenidan, baina bai, bira ezberdinak nituen aldi berean: Petit fantome Frantziara, Atom Rhumba Espainiatik, Willis Drummond gehienbat Euskal Herrian eta mundu mailan ere pixka bat... Horri gehiturik hamabost urtez metaturiko nekadura, ordura arte inoiz ez nintzelako benetan gelditu. Pandemia etorri zitzaigun eta hiru hilabetez pausatu nintzen. Baina, noski, momentu baten buruan aspertu nintzen, sorkuntzarako eta proiektuetarako tira beti hor dudalako nire bar-



nean. Disko gogorra miatzen hasi eta jaberik gabeko abestiak atzeman nituen. Ez ziren Willis Drummondentzat, ezta Joseba Irazokirentzat ere; azkenean, pop-agoak zirelako, ez ziren haiekin egin ohi nuenaren hats berekoak. Zortzi abesti aukeratu eta isil-gordeka atera genuen lehen diskoa (*Before it's vanished*), 40 bat kontzertu egiteak balio izan zidan gitarrari eta kantuari ohitze-ko. Niretzako musika-tresna berria da gitarra, eta kantuari dagokionez, lehen diskorako lehen grabaketa izan zen mikrofono baten aurrean abesten nuen lehen aldia. Ez nuen ezer menperatzen eta ez nintzen abesti horien biziarazteko gai sentitzen. Ez nuen kontzerturik irudikatzen ere. Baina, azkenean, etxean gitarra lantzen segituz, lehen kontzertuak irudikatu eta Joseba Irazokiri galdetu nion lehen kontzertuetarako laguntza. Horrela abiatu nintzen eta Irungo Bloody Mary-ko Juan Carlos Garcia Albercak erran zidan taldea osatzen banuen jokaraziko zidala Andoain Rock jaialdian. Lagun musikariak deitu eta horrela abiatu nuen poz-pozik abentura berria.

“ ”

“Bi urtez biziturikoa biltzen duen ohar-liburuxka bati konparatu dezakegu *The Dancing King* diskoa”

***The Dancing King* bigarren diskoa atera berri duzu. Musika esfera propioa osatu duzu, elkar osatzen duten erritmo eta geruza ugariaren batuketa interesgarria plazaratuz kantu oro.**

Ez dut disko bati pentsatuz sortzen abestia. Abestiak bakar-bakarrik geratu behar du zutik, osotasun batean. Unibertso bat eskaini behar du abestiak, Beatlesek egiten zuen moduan. Banaiz Beatlesen eta pop estilo horren zale handia. Beraz, unibertso txiki batzuk sortzen ditut eta ondotik nire anaiak laguntzen nau, elkarren artean osotasun koherente hori atzemateko ariketarako.

Before it's vanished diskoan americana musikan gara, folk amerikarrean; emaitza oso simple eta garbitu batean. *The Dancing King*, haatik, alde pop edo ingelesagoa du, popagoa, musika elektronikoa eta sintetizadore soinuak ere badauzka. Konplexutasun gehiago daukaten abestien batuketa bat da bigarren diskoa. Bateria erritmoak ere konplexuagoak dira, jazzean edo musika progresiboan kausituriko erritmoak ditu. Ez da konplexutasuna bilatu dudala, horrela atera da.

Disko bakoitzak du bere unibertsoa. Azkenean, zirrara sorrarazten dizuten doinuen batuketa dugu Rüdiger.

Bai erabat. Etxean entzuten dudanan erakusleihoa da. Hunkitzen nauen musika asko bada, eta guztiak ezin ditut dauzkan beste taldeetara bideratu. Kabitzen ez zirenak Rüdigerera bideratu ditut. Pentsatzen dut Rüdigeren disko bakoitzak mundu propio bat eskainiko duela eta aldiro disko oso ezberdin bat izango dudala. Seguruenik jendea galduko dut bidean eta berri batzuk irabaziko. Nihaurk plazer hartzeko proiektu bat da oroz gainetik.

Zuzenezkoetan plazer hartzen duzu?

Bai, orain bai. Eskerrak aspaldian eza gutzen dudala oholtza gaina! Zortzi urte luzez sekulako izua nuen, literalki ikaran nintzen, baina doi bat pasa zait eta eskerrak. Noski, gitarrista-abelsari izatea konplikatuagoa zait, ez naizelako batera jole naizenean bezain ezkutua. Gainera, publikoarekilako harremana bideratu behar duzu, zeozer pasarazi behar diozu, baita taldekideei ere. Baina ari naiz, poliki-poliki. Oraindik ere mentalean naiz gehiegi, alde teknikoak leku gehiegi hartzen dit buruan, baina datozen kontzertuei esker eta etxean lantzearen bortxaz emango ditut pauso batzuk aurrera, naturalki. Lan handia da, baina aldi berean oso interesgarria zait, asko ikasten dut eta batera jole gisa ere balioko dit.

Zu aitzinean eta batera atzealdean beraz.

Bateriaren gaineko kontrola uztea oraindik zaila zait eta ni egon naiz disko honen baterian. Baina erran beharra daukat Rüdigereko batera zatiak izan direla zailtasun gehien ekarri dizkidatenak. Ohikotik ezberdina zitzaidan, abestiak eskatzen zituen erritmo batzuk antinaturalak zitzaidan. Batzuetan beso bat bizkarraren atzean blokeatu behar izan dut ezberdina zen hori jo ahal izateko. Azkenean, ezberdinki harremandu behar izan naiz bateriarekin.

Deseraikuntzatik pasa zera hortaz.

Bai, deseraikuntza metala izan da. Sorpresa izan da eta aldi berean desafio interesgarria.

Eta hitzei dagokienez, zer nolako gogoetak kanturatzan dizkiguzu?

Nahiko letra sinpleak dira, gai berezi bat dute oinarri, poesia gutirekin. *Memory* abestian lehen pertsonan kontatua izan

**LABURREAN**

► **Euskal Herriko kontzertu gela bat?**

Matadeixe Azkoitian.

► **Willis Drummondent kantu bat? Ur gainean**

► **Euskal Herriko disko bat:**

Ke Lepo taldearen *Izpi*

► **Mundu mailako disko bat:**

Water From Your Eyes taldearen *Everyone's Crushed*

► **Amets musikal bat:**

Victoria Eugenia jotzea Rüdigerekin.

zitzaidan migratzaile baten bidaiatz ari naiz, *Breathe* munduaren egoeraz izan dezakegun solasaldi bat izan daiteke... Letra politikoak daude, baina ez bakarrik. *Once I Was Away* maitasun balada letargiko bat izan daiteke, maitaturiko izaki bat topatzen dudana LSD bidaiata. Familiatz ere mintzo naiz, familiaren muinat eta funtsatz, laguntasunak dakarren familia unibertsoatz... Zer da familia? Agian bi urteetan biziturikoa biltzen duen ohar-liburuxka bati konparatu dezakegu diskoa. Istorioak asmatzea zaila zait, kontu oso konkretuez ari naiz.

Ingelesez kantatzeko hautua egin duzu.

Doi bat konplexua izan zait hizkuntzarena, eta azkenean izan da hizkuntzen bazterketa bat, eta ez hautaketa. Euskarari dagokionez, ikasten nabil baina ez dut oraindik maila nahikoa. Badaukat euskarazko abesti baten gogoia eta prozesuan nago. Lagun batzuen proposamenak dauzkat, beraz etorriko da noiz-pait. Frantsesez ez nuen sentitzen, ez dut *chanson française* kulturarik, etxean *New Orleans Jazz*-a genuen gehiago entzungai, edota hitz batez laburbiltzeko, Beatles-ak! Ondotik ere, rock alternatibo amerikar edota ingelesa entzun izan dut. Horregatik, ingelesa atera zait. Espainola ere ez nuen sentitzen.

Anaia, arreba eta zu, senitarte osoa zarete musikaren munduan. Familia-istorio bat da musikaz zuentzat?

Gurasoek eman ziguten bai musikaren zaletasuna. Aitaren aldetik familia-ohitura bat zeukaten: sei anai-arreba ziren, bakoitzak zuen instrumentu bat (aitak zehar flauta, izeba batek biolontxelo, beste batek biolina eta horrela) eta urte guztian errepikan ibili ondoren eguberriko kontzertua eskaintzen zuten! Agian

EuskarAbentura

expedizioa

2024

IZEN EMATE EPEA ZABALIK!
www.euskarabentura.eus

► 2007-2008-an jaiotako gazteak

► Martxoaren 8ra arte

► Babesleak:

► Laguntzaileak:

► Hedabideak:



familia-tradizio batetik datorkigu, ez dakit. Dena dela, sei urte genituela galdera ez zen “musika egin nahi duzu?”, baizik eta “zein musika-tresna nahi duzu ikasi?”. Nik bateria aukeratu nuen, anaiak gitarra eta arrebak klarinetea. Ama ere artista dut, margolaria eta txikitana eta nerabezarotan beti ikusi izan dut marraz-mahaian lanean. Azkenean, etxetik normalizatua genuen arteaz bizitzeko aukera.

Taldekideak, estudioa, diskoetxeak... Badirudi lagunez inguraturik dituzula fase guztiak.

Shorebreaker estudioa anaiak sortu zuen baina hiru urtez egon gara han Willis Drummondekin eta *Hala ere* azken diskoa han grabatu genuen. Pentsatzen dut musikari guztientzat horrela dela, baina nik ere konfiantza sentitu behar dut sorkuntzaren uean. Leku batek ez du gauza handirik erraten, betetzen duten jendeek dute lekua mamitzen. Ongi sentitzen naiz Shorebreakerren gabiltzanaren artean, familia txiki bat osatzen dugu. Diskoetxeekin gauza bera, Usopop eta Forbidden Colours ditut. Musikaz pasionatu batzuk osaturiko diskoetxeak dira. Beti gustuko ukan dut familiaren parte sentitzea, elkarrekin aurrera egitea.

Artista gisa, intermitente estatusa baduzu?

“**Uste dut Rüdigeren disko bakoitzak mundu propio bat eskainiko duela eta disko oso ezberdina izango dela aldiro**”

Nire bizi administratiboa Frantzia daukadanez bai, intermitente gisa nabil lanean. Suerte handia dut. Hego Euskal Herriko eta Espainiako laguntzat egoera askoz konplikatuagoa da, autonomo gisa dabilta, tasa asko dituzte, lanean ez badabilta ez dute diru sarrerarik, erritmo gogorrean dabilta, geldialdiak egiteko aukera gutirekin. Agian ni ere horrela nabil, baina nahi izanez gero, erritmoa arindu nezake eta intermitente estatusak diru sarrera bermatuko lidake. Estatusaren erreforma edota desagerpena aipagai dute gobernukideek; espero dezakegun ez gertatzea, segurtasun handia delako artistentzat.

Bidasoaren bi aldeetako errealitateak ezagutzen dituzula, zer luke

Hegoaldeak Iparraldeko musika eszenatik hartzekoa eta *vice-versa*?

Ez zait galdera erraza, ez dudalako inoiz gehiegi sentitu bi aldeen arteko alderik. Orokorrean, osasuntsu ikusten dut Euskal Herriko eszena musikala, talde asko daude! Hori bai, errepikak egiteko lekuak eskas daude. Norbaitek zeozer politikoa egin nahi badu musikaren alde, arlo hori sustatu dezala. Ongietorria legoke. Ikusten dudana da Ipar Euskal Herrian jende gutiago dagoela, beraz logikoa iduritzen zait talde gutiago egotea –nahiz eta badauden asko–. Hego Euskal Herrian jende gehiago bizi da, hiri handiak badira eta horrek dakar kontzertu gune eta talde gehiago egotea.

Uste dut Ipar Euskal Herriak galdu duela gaztetxeen dinamika eta hori oso penagarria zait, azkenean taldeentzako oholtzak direlako gaztetxeak. Willis Drummondekin gaztetxeetan hasi ginen eta asko ekarri ziguten musikalki baita sozialki ere: gune autogestionatuak ezagutzea, bertako jende interesgarria... Baina 40 urteetatik hurbil dagoen baten erantzuna duzu hor eta aitortu beharra dizut doi bat zahar sentitzen naizela. Agian hobe duzu hogeituro urteko bati galde-tzea... Azken aldi hauetako elkarriketetan beti egoten da une bat non zehazten dudan zaharra naizela! [barrea]. Horrela da eta nahi edo ez, horrela doa! ●



Kontatzen segi behar dugulako

📍 IÑIGO SATRUSTEGI 📺 ILUNA EKOIZPENAK

Batek pentsa lezake erraz erre dai-
tezkeela gai baten inguruko kartu-
txoak ehunka antzezlan, narrazio,
kanta eta film egin direnean dagoeneko.
Baina Ezkabako presondegiari dagokio-
nez, oraindik ere bada zer kontatu. Ilu-
nako kideek *Ezkaba* izeneko antzezlan
aurkeztu zuten iazko urte bukaeran eta
hiru emanaldi eman berri dituzte Iruñe-
ko Antzerki Eskolan. Baita aretoa gorai-
no bete ere.

Amari oihu eginez aurkeztu digute Ma-
nuel gaztea. Presondegian dagoela iru-
dikatu dezakegu, horma gris zaharkitu
hotzen artean ageri da, eta falangisten
bortizkeriari negarrez erantzuten die.
Manuel, 18 urteko gazte galiziarra, Ez-
kaba mendiko gotorlekuan daukate, aita
iheslaria baita, eta atxilotu egin dutelako.
Brigada bereko Chino preso komuna eta
Julian CNTko preso politikoarekin par-
tekatuko du ziega. Negua da eta hotza

sartzen da leihotik. Jatekoa eskasa da.
Denbora zimitzak hiltzen dituztela kon-
tatu digu protagonistak. Guri eta amari.

Tarteka amari mintzo zaio Manuel.
Presondegiko kontuak kontatzen dizkio
eta argi hori nostalgiko batek bustitzen
du oholtza. Nostalgikoa da halaber Mar-
ta Juanizen galizieraren oihartzuna. Bai-
na obra eta gai tristea izanagatik ere,
Mikel Goikotxeandiaren pertsonaiak,
Chino ijitoak, umorea baliatzen du egoe-
ra eramangarriago izan dadin. Hiruren
arteko tirabirak eta bakoitzaren ibilbi-
dea askatzen joango da obra. Kartzelako
atreztoa Galiziako herrixka bateko plaza
eta Iruñeko karrikak ere badirela des-
kubrituko dugu. Baita Manuelek dituen
ametsak eta agerkizunek zentzu bat ere
badutela.

Ihesaldiaren eguna heldu da. Zalan-
tzati, 1938ko maiatzaren 22ko goizal-
dean, elkarrekin ihes egingo dute gure

pertsonaiak baina nork bere helburua
du: Manuelek Galiziara itzuli nahi du.
Julianek, berriz, Iruñera, maitearekin el-
kartu nahi baitu. Maldan behera, sigi-sa-
ga, ilunpean, sastraken artetik. Zakurren
zaunkak aditzen dira. Eta banantzea era-
bakitzen dute.

Amaiera antzezlan bera baino tristea-
goa dela ez da sekretu bat. Amari oihuka
entzungo dugu berriz Manuel. Hasierara
itzuli gara. Baina preso gaztea ezingo da
bere herrira bueltatu.

Batek pentsa lezake erraz erretzen
direla Ezkabako espetxearen inguruko
kartutxo guztiak. Baina gaur da eguna
leku horrek "gotorleku" abizena baino ez
duela. Ikur frankistaz josita dago oraindik
ere, eta abandonatuta dago erabat. Beraz,
Ezkabako ankerkeriaren memoria gune
bihurtu bitartean, behintzat, *Ezkaba* la-
neko istorioak eta historia kontatzen segi
behar dugu. ●

EZKABA

KONPAINIA: Iluna ekoizpenak

NOIZ: Urtarrilaren 21ean

NOIZ: Nafarroako Antzerki
Eskolan (Iruñea)



LIBURUA

A-uuuuu...



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

ULU EGITEKO BOLONDRES BILA

HARKAITZ CANO

SUSA, 2023

MADDI GALDOS ARETA

Aldran ibiltzen dira otsoak eta ulua dute, tartean, taldea deitzeko manera. Harkaitz Canok (Lasarte-Oria, 1975) berriki argitaratu duen *ulu egiteko bolondres bila* (Susa, 2023) ere ulu da bere horretan, irakurlea eta le-rook biltzen dituzten nolabaiteko *gu* guztiak deitzen dituen, eta inor gutxi utziko duena bere horretan epel.

“Eskerrak / inork / ez dien / poetei / kasurik / egiten”. Liburuaren kontrazala asmo-adierazpen argia da, egotzi dakizkikeen ardurez nolabait libratzeko neurria edo hartutako lizentzien aitortza. *Pozaren erdia* (Susa, 2022) soneto bilduma argitaratu eta urtebetera, orduan idazketari ezarritako forma eta neurriei itzuri egin eta, Canok berak aitortu legez, poesiaren mugak araka-

tu ditu poesia zer den auzitan jartzeko edo, bederen, galdegiteko. Zerrenda eta errepikak, berariazko akatsak, behetik gorako olerkiak, hitzik erabili gabe ondutakoak, baztertutako asmoak betetzen dituztenak, hutsunedunak eta enter botoiari sakatu gabe idatzitakoak kausi genitzake bertan, besteak beste.

Lau ataletan banatuta daude liburuaren osatzen duten 43 poemak. Erretratuak dira *National Portrait Gallery* atalean nagusi, plano ugaritara egokitutakoak. Jendartea eta egungo bizimodua aztertzeko balio dutenez gain, deigarri dira idazletza eta egiletza hizpide dituztenak: umorea eta ironia kutsu zorrotza hausnarketarako gonbita dira. *Otoitzen Liburu*a atalean atentzioa ematen du, aipatu aniztasun formalari jarraiki, testu batzuen eta bes-

tezuen arteko elkarrizketak: nabarmentzekoak dira gurean ereserki bilakaturiko txoria hizpide dutenak. Izenburuak berak iragarri legez, *Zerrenden Liburu*a atalak zerrendak dakartza oro har, Eco-ri keinuka dioskun legez “gure ustezko zentzuak ontzat / ematen duen oro / kinkan / jartzeko gosez” ondutakoak. Azkenik, *Klarion Laborategia (1)* poema luze bakarrak osatzen duen atala da, zeinak hainbat autoreren esanak eta “bigarren eskuko hausnarketak” bilbatuz lehen mailakoak ere badakarzkigun.

Enbido dira orriok norbaitek eduki zain: erronka edo proposamen; ulua, finean, uluaren zain. Aski ezagun dugu metaliteratura, baina poesiaren hausnartzeko poesia egitea baino modu hoberik ba ote? ●



MUSIKA

Hainbat azal



BELARRI

IKER BARANDIARAN

Beti pentsatu izan dut Donostiako musikari eta sortzaile honek ez duela inoiz erdietsi merezi duen lekua edo arreta. Baina, hala ez bada ere, bere kantuak geldituko zaizkigu, hor daude eta. Izan ere, badu zerbait berezia, edo gauza bat baino gehiago, nabarmentzen duena; eta horrekin batera, beti-beti aurrera egiteko daukan adorea.

Aspaldi liluratu ninduen *Atzo naiz* kantu borobil-borobilak, eta pieza horri esker ezagutu nuen. Gerora jakin nuen bakarka aritu aurretik bizkarrean ibilbidea zuela Izotz plaza taldearekin, Alboika proiektuarekin eta bai folk esparruko beste hainbat ekimenetan ere.

Izan ere, ahots eder eta bereizgarria izateaz gain, badu gaitasuna melodia lan-

duak idazteko, sartu eta gelditzen direnak. Eta, ikasitakoari eta bizi izandakoari esker, baditu alde asko: Xabi rockeroa, euskal folka maite duen Xabi, Xabi ilunagoa, baita eragin horiek guztiek bere egiteko eta kantuak jantzi dotoreenekin atontzeko abilezia ere. Bere kontra (ez nire iritziz) argudiatu daiteke musika ezlekuren batean kokatu ahal dela.

Bestalde, beti-beti jakin du musikari apartekoekin elkartzeko, eta honako lanean ere ez du kontrakorik egin: Karlos Aranzegi, Nando Neira, Quico Pugés, Arkaitz Miner... A ze tempo eta janzkerak ematen dizkieten kantuei!

Bere bakarkako bosgarren lan luzea da hau eta hamar kantuetan barrena bada (gustura) bidaiatzerik: *Inork ez-*



BETAZALAK

XABI SAN SEBASTIAN

BELARRI, 2023

ek dotore zabaltzen du lana. *Entzun* ek melodia ederra eta San Sebastianen marka du, Irlandako folk ziprirtinekin. *Konpai*-en ia buruz egiten du jauzi Dubliners eta McGowan-en kupe-lera. *Lorrazak harean* folk jantzidun popa da, handitzen doana. *Andresi*-n Zimmerman jantzita dator Xabi. *Lerro etenak* lauso eta goxo baina sarkorra da, *hit!*-etako bat. *Gure begien distira*-k 1970eko euskal kantagileen artea dauka. *Ardi gosetuak* da ardi beltza eta kiribildua: gitarreroagoa, gordinagoa eta amerikarra bada ere, ezohikoa, handia!. *Gure zeruak* edo non-dago-Lete?. Bukatzeko, *Jantzi gaur biharko argiz* amerikar kutsua duen ostiral gaueko gozamenerako pop-rocka da. ●

Giza gorpuak: noiz jan, nori lapurtu

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

deia berrien faltan dabilenean, entretenimenduaren industriak lotsa handirik gabe bilatzen du izozkailuan. Eta gai izaten da okela gogortuari saltsa berriren bat erantsiz, gehi propaganda, propaganda eta propaganda erabiliz, gauza berri gisa saltzeko iraungita dagoena ere. Juan Antonio Bayonaren *La sociedad de la nieve*, adibidez: ekartzen ote dio zerbait berririk –zinematografikoki edo bestela– 1972an Andeetan gertatutako hegazkin-istripuari eta, batez ere, beren kideak janez biziraun behar izan zuten bidaiarien tragediari? Ba, zalantzak ditut.

Hori bai, pelikulak berriz ere piztu du kanibalismoaren gaia. Horrek erakusten du ez dakitzenbat menderen ondoren, Mendebaldeko zibilizazioak oraindik ez dauzkala batere argi bere dietaren marra gorriak; eta tartean behin norbaitek dio: “Bale, normalean ez, baina egoera horretan aurkituko bazina zuk ere ez al zenuke...?”. Eta debate hutsal bezain sutua pizten da bazkaltiarren artean, batek defendatuko baitu zer ahoratzen dugun eta zer ez hautu erabat kulturala dela, bestela ikusi nola jaten dituzten txakurrak munduko beste leku batzuetan; eta beste batek erantzungo dio muga biologikoak ere badaudela, txakurrak ez du txakurra jaten. Eta: nola ezetz, begira bideo hau. Bale, baina salbuespena da. Eta horrela, sake eta erreto, mundua –edo haren menua behintzat– konpontzeko enegarren saiakerak porrot egingo du.

Argitu gabe utziko dute, halaber, zer egin daitekeen eta zer ez giza gorputz batekin, behin haren baitan bizi zenak alde egin duenean. Joan den astean dilema horri emandako erantzun (gure garaia nolakoa den kontuan hartuta) nahiko aurreikusgarri baten berri ze-



lazko abenduan, Gaza iparraldean hildako palestinarren gorpuak bahitu zituen Israeliek. Itzuli ondoren, hobi komun batean lurperatu zituzten.

karren prentsak. Valentzian gertatu da: zenbait lagun atxilotu dituzte, antza denez ospitaleetatik gorpuak ateratzen aritu direlako paperak faltsutuz, gero Medikuntza fakultateei saltzeko. 1.200 euro fianbre bakoitzagatik. Problema legalak saihesteko –etikoak, bistan denez, ez zitzaizkien asko inporta–, modurik miserableenean hildako jendearen gorpuekin egiten zuten negozioa, gehienek seniderik ez zeukatenez inork ez baitzuen haien faltarik sumatzen.

Gauzek normal samar funtzionatzen duten lekuetan horrelako merkatu ilunak sortzen badira, pentsa zer gerta daitekeen hau irakurtzen ari zaren bitartean Gazan. Iazko azaroaren amaieratik ari dira salatzen giza eskubideen aldeko taldeak genozidioaren biktimak palestinar batzuei, hil ondoren, organoak erauzi dizkietela. Korneak. Gibelak. Giltzurrunak. Bihotzak. Nork? Zertarako? Zenbaten truke? Berehala sortzen dira erantzunik izango ez duten galderak. Eta pentsatzen duzu, aurreka-

riak ezagututa, hori leporatu diotenak ahaleginen bat egin beharko lukeela bere errugabetasuna frogatzeko.

Ez dute beharrik ordea. Albistea hanka puntetan pasa da. Deigarria behintzat, bada: norbaitek eskala txiki-koko gorpu-lapurreta txapuz samarrak egiten dituenean, prentsari ez zaizkio faltatzen espantuz beteriko salaketak. Aldiz, ehunka gorpuekin ustez gauza berbera egiten ari direnean, estatu batek babestuta, armada aitzindari eta munduko herrialde boteretsuenen konplizitatez, eskularru profilaktikoz jantzitako eskuek “Hamasek organo lapurreta salatu du” tekleatzen dute, zera aditzera emanez: “Batek gauza bat dio eta besteak kontrakoa: oso konplikatu da hau dena”.

Gero gaua iristen da, eta pantailak Andeetako dilema moral onargarriarekin lokartzen gaitu. Biharamunean inolaz ere onartu ezin denak gertatzen jarraituko du, amorrua antolatzeko organoa ere erauzi izan baligute bezala. ●

OROIMEN HISTERIKOA

Nagore Irazustabarrenaren podcasta

*Historia diren istorioek txoratzten
gaituztenontzako saioa*



Asteartero
ARGIAN eta
audio plataforma
guztietan

 ARGIA.eus/podcast

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

Elkarrekin hazten



Zatoz argazkira

AURREMATRIKULA, OTSAILAREN 7tik 23ra

www.euskadi.eus/hezkuntza

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN